



ITZALETIK ARGIRA

Denborarekin, musikaren eszenan lortu du ikusgarritasuna emakumeak. Lehen lerrotik kontatu dituzte bizipenak 20

"Badakit beti alboan izango dudala"

Mercedes
FINANZAK ETA ETX.
GAES-DNO SERBIZIOA



Silvia

EMAKUMEAK ETX. SERBIZIOA
ENTZUMEN ZENTROAK

ENTZUMENA
DOAN
aztertuko dizugu

JEREZ
CARRERA MURCIA 30
MOTORCYCLEMOTO
www.jerez.es

www.gaes.es

Foruen Ibilbidea, 8
Tel.: 943 15 03 95
azpeitia@gaes.es
AZPEITIA



GAES
Entzumen Zentroak



QLED TV

*Zatoz gure erakusketa
berria ikustera!*



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00

ESKELA ZERBITZUA uztarria.eus -en



Carmona Ehorztetxea

Pablo VI, 7

Asteko egun guztietan
24 orduko zerbitzua

Telf: 943 15 15 14
Mobila: 629 43 42 67

30€



Uztarria

Perez Arregi 1, behea

Astelehenetik ostiralera,
09:15-13:15
15:00-19:00

Telf: 943 15 03 58

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.eus

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 197.a (2017ko abuztua)

Urtea. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)

Maistasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685780412 /

uztarria@uztarria.eus

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Oihan Amezia

Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak
Bai Euskarari



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2017KO ABUZTUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?

04



iritzia

Inkesta. Abuztuan herrian geldituz gero, zer egingo duzu? **13**

mamia

Elkarrizketa. Mirari Garaia kazetariak 25 urte daramatza ETBn lanean **04**

Klik! San Inazio jaiek utzi izan dute irudi berezirik **16**

Turismoa, goraka. Geroz eta bisitari gehiago etortzen da Azpeitira **26**

jakiteko

Atzera begira. 'Sagardoa Azpeitian' liburuaz, Laxaro Azkunerekin eta Juan Joxe Agirrerekin **34**

16



34



Ba aL dakizu zubi berriaren erabilera ez galdetuta egiteko prest dagoela udala, "herritarrek hala nahi badute"? **Uztarria**



Izan uztarriaren bazkide

943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

MIRARI GARAIA

ETBko kazetaria

“kazetariok egunero ikasten dugu zerbait”

25 urte bete ditu Mirari Garaiak ETBn lanean. Kalea gustatzen zaio gehien, jendearekin hitz egitea eta unean uneko albisteen berri ematea. 📺👁️ Ihintza Elustondo

Milaka elkarrizketa egindakoa izango da Mirari Garaia, ETBn lanean daramatzen 25 urteotan. Zilarrezko ezteiak bete dituenean, lehen aldiz, mikroa utzi eta beste aldean jartzea tokatu zaio. “Urduri” dagoela dio. “Arraro sentitzen naiz oso, ze ni ez naiz ezeren protagonista sentitzen, beti izan naiz bitartekari bat”. Dena den, bere buruari “disfrutatzen saiatzeko” agindu dio. **Zergatik kazetari?**

Idaztea asko gustatzen zaidalako erabaki nuen kazetaritza ikastea, eta ez nuen pentsatzen telebistan amaituko nuenik. Nahikoa lotsatia naiz, eta kamerak beti ikaratu izan nau pixka bat. Baina lanbide guztietan bezala, beldurrak gainditu behar dituzu. Ikasten ari nintzen

bitartean, bekadun aritu nintzen bi urtez ETBn. Ikasketak bukatu, eta 25 urterekin-edo oposaketak gainditu nituen. Egia esan, planak nituen kanpora ikastera joateko, Ameriketako Estatu Batuetara-edo... Ez nuen pentsatzen hain azkar lortuko nuenik plaza, eta horrek pixka bat gelditu egin ninduen. Baina, noski, sekulako pagotxa zen ETBn postu finko bat eskuratzea.

Beti telebistan aritu izan zara?

Bai, eta beti albistegietan. Ez dut beste ezer egin. Eta, egia esan, hori horrela izan da beste arlo batzuetan aritzeko interesik jarri ez dudalako. Albistegia gustatzen zait gehien, eta gustatzen zait, gainera, eguneko albisteak lan-

|||DATUAK||||||||||||||

|||Jaio. 1967ko maiatzaren 3a.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi tokia. Azpeitia. |||Lanbidea. Kazetaria.

tzea. Mikroa eskuetan hartzen dut, eta aldatu egiten naiz, kazetari bihurtzen naiz. Atsegin dut prentsaurrekora joatea eta han aditzen dudana irudikatzea. Azkar-azkar egin behar izaten dut lana: handik irten, irudiak grabatu, adierazpen batzuk bildu eta 14:00etarako bideoa euskaraz eginda eduki behar dut; eta, 15:00etarako, gaztelaniaz. Hori, goizeko txandetan lanean ari naizenean. Iruditzen zait bat-batean botatzen duzun bideo hori dela espontaneo, freskoa eta politena.

Talde batekin ibiliko zara alde batetik bestera, ezta?

Kamera arduradunarekin eta

operadore batekin joaten naiz albistearen lekura. Hiru izaten gara normalean, baina murrizketen ondorioz, batzuetan kameraren arduraduna bakarrik etortzen da.

Zer motatako gaiak lantzen dituzu?

Normalean, gizarte gaietan aritzen naiz. Talde horretan gauden kazetariok denetarik egiten dugu pixka bat. Gehien gustatzen zaidan arloa da, zalantzarik gabe.

Zergatik?

Jendearekin kontaktu gehien daukazu eremua delako, eta kalean gehien ibiltzen garenak gizarte arloko kazetariak garelako. Gainera, gai humanoagoak lantzeko aukera izaten dugu.

25 urte daramatzazu kazetaritzaren munduan. Nola al-



datu da urte hauetan lan egiteko modua?

Hasi nintzenean, bekadunok tele-
tipoak kontrolatzen genituen. Ma-
kina handi batzuk genituen, eta
paper luze bat biltzen genuen
eskuz. *Urgente* jartzen zuenean,
arduradunei abisatzen genien.
Gero, makina handi batzuekin
idazten hasi ginen. Iurretan (Biz-
kaia) ordenagailuak jarri zizkigu-
tenean, sinesgaitza izan zen gu-
retzat. Internet edukitzea harrigar-
ria zen. Lanbideak bera izaten ja-
rraitzen du, baina asko aldatzen
ari dira baliabideak eta gure ingu-
ru guztia. Lehen, zuzeneko bat
egiteko kamioi handi bat behar
zen, gero furgoneta txiki bat, eta
orain motxila batekin moldatzen
gara. Orain dena da, ahal bada,
zuzenean eta azkar. Azkenaldian,
arlo buruari oharrak Whatsapp
bidez bidaltzen ere hasi gara.
Gazteak erraz ohitzen dira horre-
lako aldaketetara, baina guri
pixka bat kostatu egiten zaigu.

Zer nolako balorazioa egiten duzu zure ibilbideaz?

Benetan ona. Pribilegiatua senti-
tzen naiz leku askotan egoteko
aukera izan dudalako. Kazetari
izateak bestela biziko ez nituen
gauzak bizitzeko aukera eman dit.
Kazetariok egunero ikasten dugu
zerbait. Nik beti esaten dut dene-
tarik dakigula, baina denetarik
gutxi. Oso lan polita da, baina
pixka bat estresagarria ere bai.
Askotan, 13:30erako erredakzio-
ra iritsi eta 14:00etarako muntatu
behar dut bideoa; edo Julen Se-
rranoren hilketaren epaiketa ja-

rraitu nuen, eta honako hau en-
tzun nuen: “*Diario Vasco* baino
lehenago eman dugu albistea”.
Orain horrela da, nork lehenago.

Zer ikasi duzu urteotan?

Niretzat inportanteena beti izan
da albistea ahalik eta zehatzen
ematea, ahal dela inori minik ez
egitea eta jendea errespetatzea.
Nire klabea da, elkarrizketatzen
dudan pertsona horrentzat kame-
raren aurrean jartzen den mo-
mentua oso inportantea dela go-
goratzea. Agian, etxera joango da
eta esango dio amari: “Ama, tele-
bistan azalduko naiz!”. Baina guri
askotan lanean ari garela ahaztu
egiten zaigu hori, eta niretzat in-
portantea da hori gogoratzea eta
jende hori errespetatzea. Eta
kontuan izan behar dugu jende
horri esker gaudela gu hor. Ho-
rrez gain, lanak bukatzeko larri za-
biltzanean edo ez daukazunean
argi nondik heldu, nik beti esaten
dut konfiantza izan behar duzula
zure urteetako esperientzian, es-
perientziak eman dizun intuizio
horretan. Eta, normalean, asmatu
egiten duzu.

Kontziliaziorako lanbide erraza al da kazetaritza?

Horretan ere pribilegiatua senti-
tzen naiz. Aukerak izan ditut ama-
tasun bajak luzatzeko, eta edo-
zein behar eduki dudanean ere
erraztasunak izan ditut. Nik lehen-
tasun handia eman diot familiari.
Bi ume izan ditut eta haiekin ego-
ten saiatu naiz, baina badakit
jende askok ezin duela. Ikusten
dut prekarietate handia dagoela
lanbide honetan. Gazte asko
ikusten dut noiz deituko dioten
zain. “Nola esan horiei beste zer-
bait bilatzeko?”, pentsatzen dut.
Baina gustatzen zaizun lanbidea
bada...

**Batzuek esaten dute EITBk
erreforma integrala behar
duela. Besteak beste, Eusko
Legebiltzarreko eztabaida-
gaietako bat da. Zer uste
duzu horren inguruan?**

Nik uste dut zuzendaritza oso ona
daukagula, baina eredu bat ze-
haztu beharra dagoela: zer tele-

“mikroa
eskuetan hartzen
dut, eta aldatu
egiten naiz”

“Lanbide bera
da, baina asko ari
dira aldatzen
baliabideak”



Garaia Pragan, ETBn lanean hasi berritan. ||| **Mirari Garaia**

bista nahi dugun; lau kate nahi ditugun, bi edo bat; euskaraz izan behar duen... Nire iritziz, Euskal Telebistak euskaraz izan behar du. Batzuek esaten dute elebiduna izan behar duela, baina bada-kigu zer gertatzen den: hizkuntza indartsuak txikia zapaltzen duela. Euskal Herria egiteko proiektu horretan telebista indartsu bat inportantea da, eta euskaraz izan beharko luke telebista horrek. Legealdi honetan erabakiko omen dute zer egin telebista ereduarekin. Baina, egia da, audientziak gaizki doazela. Orain arte, liderrak ginen informazioan, eta, azkenaldian, Tele 5ek aurrea hartu digu momentu batzuetan. Hausnarketa handi bat behar dugula-koan nago.

Telebista ikusteko modua ere asko aldatu da.

Lehen, gure etxean denok jartzen

ginen 21:00etan albisteak ikusten. Eta ni orain konturatzen naiz nire semeak, adibidez, ez duela hori egiten. Baina, era berean, oso ondo informatuta dago. Interneten begiratzen du dena. Egun, eskuko telefonoa denerako da ezinbesteko erreminta. Eta nire iritziz, bilatu behar da modu bat jendea telebistara telefonoen bidez erakartzeko.

EITBren hizkuntz irizpide-ek ere eztabaida piztu izan dute. Behartzen zaituzte euskaraz eta gaztelaniaz jasotzera adierazpenak?

Aldaketa bat egon da. Lehen, normalean, euskaldun bati galde-tu egiten genion nahi al zuen gaztelaniaz egin. Eta, normalean, ia denek egiten zuten gaztelaniaz zuzenean. Baina, orain, ja, zuzendaritzak aholkatu digu herritarrek gaztelaniaz egiteko zailtasunak

dituztela ikusten badugu, euskaraz bakarrik egiten uztea. Hau da, ikusten badugu hizlaria euskaldun-euskalduna dela, ez diogu gaztelaniaz hitz eginarazten. Baimena daukagu *Teleberrin* adierazpenak euskaraz sartzeko. Izan ere, lehentasuna euskara da, eta, batez ere, umeak direnean hizlariak. Umeen kasuan, aholkatu digute horiei gaztelaniaz ez eginaraztea. Leku oso erdalduna bada bai, baina lbarrara joaten bagara, ez.

Lehen ez zen horrela?

Ez. Lehen ez ziguten ezer esaten, baina guk nahi izaten genuen adierazpenak *Gaur egunerako* euskaraz eta *Teleberrirako* gaztelaniaz jasotzea. Orain, gero eta jende gehiagok esaten du ez duela gaztelaniaz egingo. Kultura munduan badago mugimendu bat adierazpenak euskaraz soilik egingo dituela esaten duena, eta alkate askok ere gauza bera egiten dute. Badakite gaztelaniaz eginez gero jende gehiagorengana iritsiko direla, baina apustu bat da.

Eduki aldetik, nola ikusten duzu ETB? *Gu ta gutarrak* saioak ematen duen eredia zalantzan jarri da behin eta berriz, eta irailean ez du jarraituko.

Iruditzen zait telebista ikusteko egin behar dela. Norberak erabakitzen du saio bat ikusi edo ez. Egia da *Gu ta gutarrak* asko ikusten dela, eta *El Conquistador del fin del mundo* saioarengatik salbatzen dela ETB2. Uste dut ez dugula eskrupulurik eduki behar, eta, gainera, pentsatzen dut ezin dugula goi mailako telebista euskaldun kulturik egin. Euskal Herrian ikusten da Tele 5 gehien; *Salvame* eta antzeko saioak... Hori bai, denaren gainetik, emakumea errespetatu eta gutxiene-ko batzuk bete behar dira.

Zer albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Albiste positiboak ematea gustatzen zait. Eta, askotan, badirudi albiste onak ez direla albiste, tx-

“gero eta jende gehiagok esaten du gaztelaniaz ez duela egingo”

“Albiste onak ez direla albiste dirudi, txarrak bakarrik direla”

rrak bakarrik direla. Gustatuko litzaidake Euskal Herrian bakea ehuneko ehunetan lortu dugula esatea; harmonia bat daukagula, tira-bira politiko guztiak bukatu direla, beste etapa bat hasten dela... Gustatuko litzaidake Euskal Herria ezaguna izatea munduan enpresa arloan egiten den lanagatik, jende langilea izateagatik, herrialde aurreratu eta moderno izateagatik eta jendearen bizi baldintzak on-onak diren herrialde bat delako.

Zein da eman duzun albiste-rik txarrena?

Gizon bat epaitu zuten Zarautzen alaba itsasora botatzeagatik. Auzi saio haiek jarraitu nituen, eta Zarautzera propio joan nintzen umea handik botatzea posible ote zen ikustera. Kasu harekin oso gaizki pasatu nuen. Bestalde, istripu larri batzuen berri ematea ere egokitu zait, baita iaz Iruñeko sanferminetan jazo zen bortxaketaren berri ematea ere. Egia esan, nahiago nuke ezer jakin izan ez banu kasu hartaz, baina tokatu egiten da horrelakoen berri ematea ere. Uste dut adinarekin gehiago eragiten dutela gauzek. Askotan pentsatzen dut, gaurkotasanarekin hainbestearinoko lotura izatea... Nora joatea egokituko zaizun ez jakiteak sortzen du beldur puntu bat.

Eta onena?

Miramongo Cita-Alzheimer fundazioak gaixotasunei aurre egiteko Europa mailako ikerketa garrantzitsu batean parte hartzea lortu duela.✱

Ondo izan

U

ztarran idazten hasi eta denbora gutxira, gizonetako bat gerturatu zitzaidan kalean. Elkar oso gutxi ezagutzen genuen; alabaina, kontu-kontari egon ginen denbora tarte luzean. Besteak beste, aipatu zidan oso gustuko zuela nik idatzitakoa irakurtzea, akatsak akats. Esan zidan ez zela ohikoa mutil batek sentimenduei buruz idaztea, eta hori atsegin zuela. Hark zioen egun oraindik asko kostatzen dela gizonetako bere moldetik kanpo ateratzea, batik bat, denok elkar ezagutzen dugun herrietan. Hausnarketarako tarte handirik hartu gabe, eta, beharbada, jasotako loreen usainarekin txundituta, ez nion garrantzia asko eman sentimenduak aieratzearen kontuari.

Denbora hegan joan da ordutik. Uste dut, idazten dudanean, ezinezkoa dudala ez islatzea sentitzen dudanaren zatiren bat. Hala ere, interesgarri izan nahiak tarteka eraman nau naizenetik nahikoa urrun. Hileroko joan-etorrian nire moduko idazle traketsarentzat ez da erraza oinarrizko eredu estuetatik ez ateratzea. Esate baterako, zaila da umiltasunetik idaztea jende guztia erantzutik; izan ere, zenbait pertsonak protagonismo zalearen etiketak jartzen dituzte hemen azaltze hutsagatik.

Orain agurtzen hasteko garaia da. Erakusleihen eder honi, hurrengora arte, adio. Bide honetan guztian asko ikasi dut, batik bat, neure buruaz. Hilero orri zuriaren aurrean denbora tarte egon izan naiz, jakinik ezagutzen ez nauen jendeak irakurriko nauela. Horrek ardura eta bertigoa sortu izan dizkit. Ze badakit ondoren kalean gurutzatuko naizela jende horrekin, eta, agian, norbaitek ez duela gustuko izango nik idatzitakoa. Autoestimaren kontuak.

Lorpen handiena, gurasoek leitzea

Bi urte hauetako lorpen handiena gurasoek nik idatzitakoa irakurtzea izan da niretzat, behinik behin, balio gehiena eman diodana.



|||||||egoitz arruti|||||||

|||Gurasoek nik idatzitakoa irakurtzea izan da lorpen handiena, behinik behin, balio gehiena eman diodana

Orain arte, ia ezer irakurri gabeak ziren beren ama hizkuntzan. Garai gogorretan heziak izan ziren. Egun, hileko aurreneko ostiralaren zain egoten dira Uztarrria postontzitik jasotzeko, eta gustura irakurtzen dituzte herriko gora-beherak. Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkiet gauza askogatik.

Amaitzeko, zenbait kontu aipatu nahi nizkizuke zuri irakurle. Ez dut idatzi erabateko zuzentasunez, ez eta jatortasunez. Akatsak egin ditut pertsona izanagatik; are gehiago, tarteka ez naiz izan koherentea. Ez dut sentitzen penarik ez banauzu atsegin edo ez bazauze ados esan ditudanekin. Posible da nire izena eta argazkia ikustean irakurtzeko gogo denak kentzea, baina, akaso, beste modu batean, beste une batean edo beste nonbaiten gozatuko dugu elkarrekin.

Aldiz, asko poztzen naiz nire idazlanak irakurri eta, besterik gabe, ongi sentitu bazara. Etorkizunean jarraituko dut idazten, baina ez dakit non edo nola. Beraz, ziur nago aurkituko garela tintaz zikindutako orriren batean, non nik zerbait esan nahi dudan eta zuk zerbait ulertu nahi duzun. Bien bitartean, kulunkatzen jarraituko dut.*



Zein da nazia?

Eguraldi onarekin batera heldu zitzaigun uda duela hilabete eskas, eta udarekin batera heldu zaizkigu herriko festak, Euskal Herriko plazak urtero hutsik egin gabe koloreztatzen dituzten txosnak, eta baita udaberri partean erosi genuen bainujantzia estreinatzeko abagunea ere. Jeinua izan beharrik ez dago ohartzeko udak gehientsuenoi behintzat irribarre bat marrazten digula aurpegian, salbuespenak salbuespen. Salbuespenez dihardut, urtero-urtero, festa giroan irribarreak borratzen dizkiguten albisteak heltzen zaizkigulako. Hutsik egin gabe horiek ere.

Ikusi edo entzun nahi ez duenak bakarrik ekidin ditzake festetan izandako erasoen inguruan ia egunero heltzen zaizkigun berriak. Ez dakit inoiz kontatu ote ditudan egunkaria ireki eta uda garaian festetan izandako erasoak, baina kontatzen direnak eta kontatzen ez direnak zenbatzen baditugu, ezikusiarrena egin genezake, edo salatu, eta neurriak hartu.

Uda iristeaz batera iritsi zitzaigun, halaber, harrotasunaz hitz egiteko momentua, ostadarren koloreez mintzatzeko unea, eta horrek dakarren guztia kritikatzeko okasioa ere bai. Ezikusiarrena egin genezake horren aurrean ere, edo behatu genezake zenbat enpresa saiatu diren aldarri bati etekina ateratzen eta beren hipokresia eta ekintzak zuritzen.

Naziak eta aldarriak

Feminazia izatea da egunero-egunero festetan eta festetatik kanpo egon ohi diren eraso sexistak egonagatik, emakumeen ahalduntzeaz hitz egitea, feminismoaz hitz egitea, salatzea eta neurriak exijitzea, emakumeei festetan parte hartzeko eskubidea ukatzen dieten jaiak ditugunean Euskal Herrian. Homonazia izatea da gay harrotasunaren egunean, diru gosez aldarri batez jabetu nahi duten komertzio eta enpresak kritikatzeko, eta heterosexualeen harrotasun egunik behar ez dela esatea.

Gero eta gehiago entzuten dut inguruan nazi terminoa, eta kurioa da kolektibo gu-



|||||||anartz izagirre|||||

|||Ez diezaiegun heltzen utzi, ordea, festetan gerta daitezkeen eraso sexistei, homofoboei eta gainerakoei

txietsiak irudikatzen dituzten kontzeptuei atxikita entzun izan ditudala beti. Nazia, histerikoa eta esajeratua izatea da eskubideen alde borrokatzea, eraso sexistak sutuki salatzea eta funtsean, gai horiez hitz egitea. Egoera horien aurrean ezikusiarrena egitea, aldiz, gure gizartean aski onartuta dagoen kontua da. Erasoak salatzea erradikala izatea da, ezikusiarrena egitea, berriz, moderatua izatea, politikoki zuzena, eta egoki ikusita dagoena.

Ez da nahikoa, eta gainera, hipokrita izatea da ekainaren 28an sare sozialetan erromako zubiaren banderatoa jartzea, eta gainontzeko egunetan aldarri horren aurkako jarrera hartzea. Ezikusiarrena egitea da festetan egon ohi diren edonolako erasoei garrantziarik ez ematea, eta doilorra izatea da erasoaren aurrean borrokan dihardutenei feminazi deitzea.

Heldu da uda, heldu dira festak, eta ate joka ditugu saninazioak. Ez diezaiegun heltzen utzi, ordea, festetan gerta daitezkeen eraso sexistei, homofoboei eta gainerakoei. Ez izan hipokrita, ez egin ezikusiarrena eta salatu. Gozatu festak, eta utzi gozatzen. Nazi atzizkia darabilgunean, berriz, saia gaitzen horri atxikita datorren hitzari erreparatu eta horretaz hausnartzen, eta galdetu diezaiegun geure buruari zein den nazia eta zein ez den.*





UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea
Tel. 943 81 26 66 - 20730 AZPEITIA

Ziklomotor lizentzia eta gidabaimen guztiak
CAP kurtsoak eta ADR kurtsoak



Gidabaimena euskaraz
ateratzeko aukera

**ONDO PASAU
SANINAZIYUEK**



Urola
PSIKOTEKNIKOAK

Lorketak eta herritzeak

- ✓ Gida baimenak
- ✓ Armak
- ✓ Nautika
- ✓ Txakur arriskutsuak

Hartzubia, 31 behea

Tel 943 81 35 06 - 20730 AZPEITIA

ORDUTEGIA:

Goizez: Asteartetan 9:30etatik 12:00etara.

Arratsaldez: Asteazken eta ostegunetan 17:30etik 20:00etara.

**ONDO PASAU
FESTAK!**



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Lan mundua iraultzea xede

Euskalgintzako eragileek, sindikatuek eta erakunde hainbatek arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko proiektu pilotua jarri dute martxan eskualdean. Abian da jada Urola Aitzindari egitasmoa.  Uztarria

Joan zen maiatzean aurkeztu zuten euskalgintzako eragileek, Kontseiluak, ELA eta LAB sindikatuek, Urola Kostako Udal Elkartek eta hainbat instituziok Urola Aitzindari egitasmoa. Hain zuzen ere, Urola Kostako arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko proiektua da Aitzindari, eta proba pilotua Urola Kostan jarri dute martxan.

Egitasmoan parte hartzen ari diren herriko enpresen artean dira San Martin egoitza, Biele eta Astigarraga Kit Line. Proiektuaren lehen urratsa langileekin eman dute, eta haiekin ari dira lan ildoak garatzen.

Egitasmoan parte hartzen ari diren enpresetako ordezkarien kezka da Urola Kosta eskualde euskalduna izanik eta enpresa askotako langile ia denak euskaldunak izanda, enpresa askotan lana gaztelaniaz egi-

tea. Lantegietako ordezkariak esan dute soldatak edo barne informazio dokumentuak gaztelania hutsean egiten direla, eta naturaltasunez hartzen direla horiek.

Egoera hori "irauli" nahi dute proiektuaren sustatzaileek. Horretarako, kontzientiazio tailerrak egingo dituzte. "Langile taldeek, ELA eta LAB sindikatuen laguntzarekin, gizarte erantzukizunez jokatzeko eta egoera aldatzeko prozesuan daudela argi adierazi dute", azaldu du Kontseiluak.

Duela aste batzuk Antzuolako Elay enpresara bisita egin zuten Urola Aitzindarin parte hartzen ari diren enpresetako ordezkariak. Izan ere, enpresan euskara plana ezarrita duten lantegi aitzindarietako bat da. 1992. urtean jarri zuten martxan plana, eta gaur egun euskaraz egiten dute lan bertan.*



Urola Aitzindarin parte hartzen ari diren enpresetako ordezkariak, Elay lantegian.  Kontseilua



Javi Jauregi.

ESANA DAGO

III "Jendeak uste du garbitzeko ezinbestekoa dela aparra, baina hori ez da horrela"

III "Laborategietan ate joka hasi nintzen duela 15 urte. Kostatuta, baina bi xanpu natural atera ditugu"

JAVIER JAUREGI
ile-apaintzailea

III "Gipuzkoako gizonezkoen saskibaloia egituratzeko hitzarmena da sinatu berri duguna"

MAIER LIZASO
ISBko lehendakaria

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Sabea Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urdul: 943.81.57.81

Zure autoak behar duen edozertarako!


AIZPURU AUTOAK

Tel: 943.81.23.69 Fax: 943.81.23.81 aizpuru@aizpuru.net www.aizpuru.net Amoreta 17, 20730 AZPEITIA

Mediterraneoa

Gure herriak, gure herri maiteak goia jo du. Festak bete betean, poza eta algara kale izkin guztietan. Festak, eta lana duenak oporrrak. Eta lan duina duenak *paga extra* ere bai. Bihotza pozik, arima alai eta patrikak bero. Biba gu. Baina hau da nire izaera kontraxtiarrak indarra hartzen duen unea. Barrua hustu ala psiko-delakoari bisita egin. Uztarriak eman didan aukera merkeagoa. Miserablea naiz edo miserablea sentitzen naiz. Nik ere buruko min dezente ematen didaten arazoak baditut, osasunez ondo baina nahi bezain ondo ez, bi hitzetan, kexatzeko arrazoiak baditut. Baina zenbat eta gehiago pentsatu, bu-

ruari zenbat eta buelta gehiago eman, gero eta miserableago sentitzen naiz. Ez da nire errua izango, nik bakarrik ezingo dut ezer konpondu, erabakiak hartzen dituztenei nire haserrea erakusten diet, aginte makila dutenei oker ari zarete esaten diet. Jarrera horrek arnasa ematen dit. Baina berehala itotzen naiz. Errua besteei leporatuz nire burua zuritu besterik ez dut egiten. Milaka eta milaka anai-arreba, miseriak janda, mundu zoragarri bezain gorrotagarri honetan biziraun nahian Mediterraneoko ur epeletan itotzen ari da. Eta ni, Zarauzko paradisuari, hondarretan e-tzanda. "Markel, Rajoy, Urkullu, Olano eta E-



txetxu urbieta

txeberria hor zeudek munduko arazoak konpontzeko. Eta behar izanez gero, Trumpen komodina ere prest. Baina Txetxu, ez, horrela ez, miserablea haiz. Hik zerurik ez duk. Are gutxiago hori pentsatu eta ezer egiten ez baduk. Koldarra haiz. Eta koldarra haizelako ondo biziko haiz. Baina tarteka kontzientzia delako hori ez duk lasai izango. Hori bai, zama horrekin bizitzen asmatuko duk". Nire miresmena eta esker ona gizatasunez, trukean ezer jaso gabe, miseriari ihesi miserableon herrialdeetara datozen anai-arrebei laguntzen ari direnei. Zerurik bada, zuek itsasoari begira dagoen etxea irabazita duzue.✘

IKUSTEKOA!



▲58: EULIEN 666 ZENBAKIA?

Insektizidaren alternatiba diren metodo ugari daude, baina azken aldian herriko taberna, jatetxe eta kafetegi askotan indar handia hartu du metodo simple batek: laukidun paper batean 58 zenbakia idatzi eta paretan zintzilikatu. Diotenez, 58 zenbakiak efektu optiko berezi bat sortzen du eulien begietan, eta amarauna erraldoi bat ikusten omen dute. Hala ere, teknika honek ez du inolako oinarri zientifikorik, eta herriko tabernarien esanetan ez da batere eraginkorra. ☞☞ Ainitze Agirrezabala✘



|||||maite garmendia|||||



Laurogei urte

ADINDUNAK. 80 urtetik gorako 925 pertsona omen ditugu erroldatuta Azpeitian. Erdiek baino gehiagok ez omen zuten harremanik Gizarte Zerbitzuekin. Horietako askorengana iritsi dira. Denek ez omen dute nahi izan. Ahalegin garrantzitsua deritzot, baina nago dena ez duela Udalak egin behar. Guztiok arduratu behar genuke inguruan ditugunez. Zorionez, badira adinekoekin eta bakarrik daudenekin ahazten ez diren boluntario taldeak. Horiek ere merezi dute gure esker ona.



Itsasi dantza taldea

4o URTE. Zer ondo pasatu genuen Soreasan! Zorionak herrian hainbeste lan egin dutenei eta egiten ari direnei. Adin askotako dantzariak eta musikariak ikusi genituen. Halere, tristura puntu batekin atera nintzen. Gazteen multzoan, proportzioan, mutil gutxiago ikusi nuen. Zergatik dabil hain mutil gutxi dantzan?



Euskal Herriko genozidioaz, hitzaldia

IDENTITATEA AKABATU. Genozidioari buruzko beste ikuspuntu bat –zabalagoa– eman zigun Xabier Irujok Sanagustinen. Nevadako Unibertsitateko irakasleak hango adibide batekin hasi zuen hitzaldia. Apatheen historiarekin. Apatxeak hiltzea zer garesti ateratzen zitzaizen kalkulatu zutenean, bide eraginkorra bat aurkitu zuten: “Indioa

hil, gizakia hil gabe". Identitatea akabatu pertsona erail beharrean. Indioak, estrategikoki prestatutako hezkuntza sisteman sartu zituzten eta apurka-apurka "indioa" ezabatu zuten. Apatxeekin bezala, zenbat lekutan eman den estrategia bera! Gurean ere badugu eskarmentua. Armarik eraginkorrenek balarik ez dutela behar ikusi genuen.✘


INKESTA

Abuztuan herrian
geldituz gero, zer
egin duzu?

Ainitze Agirrezabala

JON IPARRAGIRRE

31 urte



"Andramarietatik
irailera ditut
oporak, baina ez
goaz kanpora.

Lasai-lasai, hemen inguruan
egun-pasa batzuk egingo
ditugu. Eta baratzean ere
arituko naiz, pixka bat".

MARIAN ESTEVEZ

50 urte



"Extremadurakoa
da senarra, eta
saninazioak
bukatzean hara

joango gara, hilaren 20ra arte.
Gero, lanera itzuli behar dut,
baina abuztuan arratsaldeak jai
ditudanez, giroak lagunduz
gero, hondartzara joango naiz".

BEGOÑA AROZENA

63 urte




"Mendi bueltak
egin ditugu
Xoxotera eta
Larraitx aldera.

Masifikazioak ez ditut gustuko,
eta, beraz, tarteka joango gara
ltzurungo hondartzara. Kafetxo
hartuz liburua irakurtzeko ere
aproposa da uda. Bilatuko
ditugu bai zereginak abuztuan".

IÑAKI ARRIETA

67 urte



"Emaztea eta biok
Benidormen
igaroko dugu
abuztua,

santioetako eta saninazioetako
zaratetik eta festa girotik
aparte".

Euskararen liliak

Amona Mireni izugarri gustatzen zaio herriko kaletan ezagunekin txor-txorrean aritu eta, hezurak pixka bat mugituz, hara eta hona ibiltzea. Gaur ere bere bueltatxo egitera atera da etxetik, eta pausoa pixka bat makaldu bazaio ere, belarri fina du oraindik eta aise aditzen ditu ingurukoen elkarrizketak. Egunotan bekokia sarri belzten du, ordea; kezkatuta dago; izan ere, nahi baino erdara gehiago entzuten du. Duela urte batzuk baino gazte gehiago ari dira erdaraz, eta horrek barrua mugitzen dio. Ondo gogoan du eskolan, Maria zen garai hartan, zenbat aldiz jantzi behar izan zuen eraztuna euskaraz hitz egiteagatik. Euskaraz hitz egin nahi eta kristiano mintzatzerantz behartzen zituzten!

Zorionez, garai haiek atzean gelditu dira, eta gaur egun lasai darabil euskara Azpeitian, herri euskaldunen artean. Halere, azken boladan gaztelania gehiago entzuten du, baita gazteen artean ere. Atse-den premian aulkian eseri eta arrazoiak zein izan dai-

tezkeen pentsatzen jarri da. Hedabideetako edukia euskara ez beste hizkuntza batean jasotzen dutelako, akaso? Euskaraz jaso arren, eredu traketsa heltzen zaielako? Gurasoak erdaraz entzuten dituztelako? Taldeko batek beste guztiak hizkuntzaz aldarazten dituelako? Euskara balioesten ez dutelako?

Ederra komeria, gorputza deskantsatu bai, baina burua nekatu! Arrazoiak ez da bakarrik izango... Amona Mirenek entzun du euskararen erabilerak behera egin duela Gipuzkoan, eta horrek min ematen dio, etxera bueltan sentitzen duen belaunetako mina baino zorrotzagoa. Gure herrian hizkera ederra dugu, eta guztien artean eutsi behar diogu. Belaunaldi gazteenak dira euskararen liliak, herriaren etorkizuna eskutian dutenak, eta hizkuntzarekiko maitasunaz ureztatu behar ditugu; izan ere, utzikierian eroriz gero, arriskua dago hikari (batik bat nokari) gertatu zaiona suertatzeko; arrazoiaren batengatik nahiz utzikieria-riagatik, pixkanaka, erabiltzeari uzten ari zaiola, alegia.



lierni varela

galdetzen hasita, jarriko al dute
udazkenean, agindu bezala, hondakinak
biltzeko sistema berria? Uztarria

Bizi. Biziarazi

Ezagutzen duzu agian Bibliaren hasiera, munduaren sorrera-mitoaren lehen hitzak: *Hasieran, Jainkoak zeru-lurra egin zituen...* (Has 1,1). Mitoak ez digu ematen aspaldiko berri, gaurko berri baizik. Ez digu erakusten "hasieran" zer gertatu zen, baizik eta gaur nola bizi. Egunero bizitzen nola hasi.

Bizi zaitez sorkari eta sortzaile gisa. *Zeru-lurren*, den guztiaren baitan sortua zara; besterengandik, den ororen Sormen eta Sorburu miragarritik zatoz etengabe. Bizi zaitez esker onez eta apaltasunez. Bizi jaten, edaten, arnasten duzuna izaki eta gizaki guztiei apalki eskertuz.

Bizi zaitez bizi sortuz, sorkari bezainbat baitzara sortzaile. Sortuak sortzea zor. Besteengandik sortua zara, besteak sortzeko. Besteek esker bizi zara, besteak zuri esker bizi daitez. Bizi zaitez diren gizaki eta izaki guztiekin neba-arrebatasun zabalean, "jainkozko" sormen agortezina gaur eta hemen pozik eta samurki hezur-mamituz.



joxe arregi

Bibliako kreaio-mitoaren amaieran, berriz, hona zer irakurtzen dugun: *Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak berak eginiko lana eta zazpigarren egunean atsedean hartu zuen* (Has 2,2). "Zazpigarren egunerako": ez du esan nahi "zazpigarren eguna iristerako", "zazpigarren eguna ospatzeko" baizik; ez noizko, zertarako baizik. Zazpigarren egunerako gara sortuak eta ari gara sortzen.

"Zazpigarren eguna" -*shabat*, "zapatu" - zera da Biblian: atsedeen-eguna, atsegin eguna. Jaieguna. Atsedenerako, atseginerako, arnasa zabal eta libre hartzeko sortuak gara behar dugu sortu. Izateko eta izanarazteko. Bizitzeko eta bizi sortzeko.

Zuberoan entzuna da, elkar agurtzerakoan: "Izan hadi". Oporaldiaren atarian, hala esan nahi nizuke, adiskide. Izan zaitez. Bizi zaitez. Hainbat eginbeharrak ez digu, tamalez, bizitzen uzten. Bizi ito egiten zaigu, ito egiten dugu. Har ezazu, bada, atsedean, har ezazu arnasa. Bizi zaitez eta biziarazi.



Tiobiboan

Hurritz, ederki ikasia duzu keinua. Etxetik ateratzera noanean, eskuan daukazuna lurrean utzi, eta airea astintzen hasten zara. "Agur, agur... laster arte!". Saninazioetako tiobibotan ibiltzeko etxetik trebatuta zatoz.

Urtero bezala, festekin batera helduko dira jaietako erromes maitagarriak, jasoko dituzte ilusioen egiturak eta trepetak, piztuko dituzte 2000 koloretako argiak... Eta zure neba-arrebak salto eta salto ibiliko dira ohe elastikoe-tan, zeinek gorago egin jausi. Zu jira-bira zoroan dabilzan auto horietako batean igoko zaituzte aitita-amamek, eta guk, behean, ikusiko

zaitugu buelta bakoitzean agur eginez eskua-
rekin.

Badakit, une horretan, nik neuk nahiago izango dudala hor ez eta, beste edozein lekutan egotea. Begiak itxi eta Laponiako basoren batetan esnatu, adibidez. Neure burua Patagonian edo, bestela, Siberiako zabal-di gaitzak zeharkatzen topatzea tren batean. Apurtu egingo baitzait bihotza, hain ume izanda "agurraren lezioa" ikasten ikusten zaitudanean.

Ez da samurra agur esaten ikastea. Edozer gauzatan azken bat badela onartzea, eta beste garai berri bati ekiteko adorea behar



|||||||xabi borda|||||||

izaten da, eta kontu horietan eskas samar gabilzanontzat despedidak ez dira trantze gozoa izaten.

Zuri, behar bada, beste bideren batetik iritsiko zaizu halakoei aurpegi emateko kemena, eta bizitzan gora zoazen eran tiobiboetako gupilaren neurrian egingo diezu aurre adio gozo eta mingotsei. Batek daki.

Hurritz, zaldiko-maldikoaren adarrak jo du; hauxe da azken bira. Jaso ditzagun eskuak gora, zuk dakizun era horretan, egin diezaiegun agur eta adio Uztarriako irakurleei.

"Agur, agur... laster arte!".*

Erotikan Plax!



||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||

Ile-apaintzailea da ogibidez Ana Segurola, eta hil honetan berari egokitu zaio galderei erantzutea.

Zer da ile-apaindegi biologiko bat?

Naturarekin eta gorputzarekin errespetuzko kontaktu zuzena izatea bere osotasunean: produktuetan, lan egiteko moduan...

Anarentzat, sexualitatea hiru hitzetan...

Plazera, orgasmoa eta jolasa.

Erotismoak eta ile-apaindegi biologikoak zertan izan dezakete lotura?

Biek erritmo biologiko bat dutela ulertzen dut, prozesu bat dutela, bakoitzak berea.

Zer moztuko zenuke guraizeekin?

Buruaren gehiegizko erabilera.

Zerk ematen dio kolorea bizitzari?

Maitasunak.

Ileak non eta nolakoak?

Non ez dakit, baina dauden tokian kixkur-kixkurak.

Zer dio ispiluak?

Begiratu, konektatu eta maitatu.

|||ANA SEGUROLA|||

Adina. 49 urte.
Herria. Aratzerreka.
Bizitokia. Lasao.
Lanbidea. Ile-apaintzailea.



||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:

Sindikatu Zaharra, 2. solairua

688897920

Hitzorduak: abuztuaz ez da izango zerbitzurik. Irailean bi hitzordu izango dira: 13an (16:00-19:00) eta 30ean (10:00-13:00).

Zein azpeitiar orraztuko zenuke?

Zu zeu!

Zita baterako looka?

Bakoitzak duen xarma potentzia-tzea garrantzitsua da, baina gehiegi transformatu gabe.

Ilea laztanduz, masajea ema-

nez, orgasmoa izaten duenik ba omen da...

Seguru. Gaitasuna izan bai, baina mugak gainditu behar.

Bidaiazteko leku bat?

Holanda. Lore artean etzanda, ederki!

Zintzilik duzun desioa...

Ba, bidaia luze bat egitea.

Desioaren etsaia da...

Indarkeria.

Izozkia, zer zaporetakoa duzu gustuko?

Jogurt zaporekoa.

Liburu bat?

Miss zapatos de lujo.*



Bada irudi berezirik

San Inazio festetan izaten da une berezi edo xelebrerik. Eta horietako batzuk kamerarekin izoztu izan dituzte herriko hainbat argazkilarik. 📌 Julene Frantzesena



▲ **BELDURRIK? EZ.**

Haur –eta ez hain haur– asko beldurtzen dira kabezuloekin, baina badira haiei planto egitera ausartzen direnak ere. Irudian ikus daitekeenez, 2008ko San Inazioetako erraldioen eta buruhandien kalejira batean, Elizkaletik igarotzerakoan, burua eskuekin babestuta lurrean etzan zen hainbat gaztetxo, kale horretan ziren lagunen harridurarako. (Angel Olabarria)

▼ **BURRUNBA ETA DESDITXA.**

Joan zen urteko San Inazio bezperako kalejiran Marea Arroxo eta Gaztetxeke kideek batukada egin zuten. Irudiko herritarrek adinako indarrez astindu bazituzten musika tresnak, aurtan berriz ateratzeko moduan dira. (Marea Arroxa)



◀ **“BOTA URE”.**

Zer hoberik, Umeen Egun bero batean goitik behera blai egitea baino? Herriko haurrek ohituratzat hartu dute jada kalez kale “bota ure!” oihuka ibiltzea, eta bueltan balde bete ur burutik behera sentitzea. Duela bi urteko Umeen Egunean irudi hau egin zuen Ramon Etxeberriak, eta bertan ikus daitekeenez, zerua lainotuta zegoen arren, umeei gustura hartu zuten Erdikaleko etxe batetik bota zieten ur jasa. Duela urte batzuetara arte, Azpeitiko Meseta Torilean parte hartzen zuten gazteak ere horrelaxe –edo areago– ibiltzen ziren.



▲ UDALETXEKO BALKOIRAINO.

“Ilargiraino eta bueltan...”, dio Pirritx eta Porrotxen abesti batek. Argazkiko umea ilargiraino ez, baina udaletxeko balkoiraino iritsi zen 2008an egin zuten giza dorreari esker. (Jexus Artola)



► TXAPELIK NAHI?

Festetan ohikoa da betaurreko, txapel edo askotariko osagai saltzaileak kalean hara eta hona ikustea, eta baita herritarrak horietakoren bat soinean dutela parrandan ibiltzea ere. Irudiko bi saltzaileak atsedena hartzen ari zirela egin zuen argazkia Angel Olabarria argazkilariak. Hain zuzen ere, udaletxe azpiko edo Sanagustinpeko eserlekuan txapel sorta banarekin zirela egin zuen beraiekin topo.





▲▼ NONDIK BEGIRATZEN DEN.

2008ko Umeen Eguneako kalejiran herritarrek gora begira zebiltzan bitartean, kameraren objektiboa beheraxeago kokatu zuen Jexux Artola argazkilariak. Beheko argazkian, hainbat lagun, plazako etxebizitza bateko balkoietan, 2010ean, txupinazoa ikusten. Iruñeko Estafeta kalean entzierroa ikusten daudela pentsa daiteke, kamiseta arrosagatik ez balitz. (Alberto Beloki)



▲ EZIN EROSOAGO.

Bi txomingero hondartzako lehen lerroan baleude moduan, txosnaguneko oholtzaren aurrean kontzertua ikusten iazko San Inazio egunez. (Marea Arroxa)



◀ JOLASTEKO TARTEA.

Ba al da San Inazio bezperako herri bazkariaren osteko jolasak baino gauza tipikoagorik? Irudiko jolasak, esaterako, badu grazia-rik; edo ez. Izan ere, bada jolas horretan kokotsa ireki duen herritarrik. (Angel Olabarria)

Irabazitako plaza

Herriko hainbat emakume aritu da eta dabil musikaren munduan. Oholtzaren gainean emakume izatea zer den azaldu dute. 📎 Ainitze Agirrezabala/Julene Frantzesena/Ihintza Elustondo

Denboraren joanean gauzak asko aldatu badira ere, oraindik gizon-nezkoak dira nagusi musikaren panoraman. Urteen poderioz, emakumeek lortu dute ikusgarritasuna bermatzea, baina, gaur gaurkoz, oraindik ere nabari dute oholtzan emakume izateak zer dakarren.

Duela hamarkada batzuk baziren emakumez soilik osatutako bi talde herrian: Amagar eta Unai Irukoa. Ordutik, hainbat emakumek ezagutu du musikagintza gertutik, besteak beste, Ane Bastidak, Olatz Pratek eta Maialen Bastidak. Bakoitzak beretik, baina emakume izanda oholtzan sentitzen dena izan dute hizpide.

ANE BASTIDA

||| **Taldeak.** Hesian, Lauroba eta Amor de Tokio. ||| **Instrumentua.** Baxua.


“Badirudi balio dugula demostratu behar dugula”

Ane Bastida (Azpeitia, 1987) baxu-jotzaileak eskarmentu handia du musikaren eszenan. Hainbat taldearekin dagoeneko zapaldu ditu dozenaka eta dozenaka oholtza, eta bizi izan ditu une gozoak zein gaziak. Bastidak azaldu duenez, Eztake taldearekin hasi zuen ibilbidea, eta orduan hasi zen “urduri” jartzen. “Nerabea nintzen, jendea ezagutzen nuen eta parrandan hasita geunden... Kritikak jasotzeari

beldurra nion”. Ondo gogoan du Lauroba taldearekin eskaini zuen lehen kontzertua: “Aurretik etxean egon nintzen, negar batean, botaka, oso gaizki pasatu nuen. Amak esaten zidan beti horrela pasatu behar banuen lagatzeko dena, baina gaizki egonagatik aurrera egin nahi nuen nik. Ia kontzertu guztia anplifikadorearen atzean igaro nuen, ezkutatuta. Txikitu egin nintzen”.

Harrezkero, baina, egin du euririk, eta es-tualdi bat baino gehiago pasatu badu ere, bere buruaren jabe da oholtzan baxu-jotzailea. “Ohitzea asko kostatu zait, barne lanketa egin behar izan dut, baina hasi naiz jendeak pentsa dezakeenari garrantziarik ez ematen. Orain arte asko eragin dit horrek. Kontzertuetan, gozatu beharrean, jendea begira egoten nintzen. Neure artean pentsatzen nuen: ‘Gaizki ari naiz jotzen’, ‘gaizki abestu dut’, ‘gutxi ari naiz mugitzen’, ‘gehiegi mugitzen naiz’... Baina ezin duzu gauza horiek pentsatzen egon.

Hasieran, uste zuen bere buruari egiten zion presio horrek ez zuela zerikusirik emakume izatearekin, baina egun argi du baietz: “Beti izan naiz oso perfekzionista eta asko zanpatu dut nire burua. Zorionez, musikaren munduan dabilen emakume asko ezagutzeko aukera izan dut urteotan, eta ohartu naiz askok dugula arazo hori. Dena ondo egin behar hori oso barneratuta daukagu, baina, aldi berean, mutil askok gaizki jo edo abestu arren, asko disfrutatzen du, eta hori da garrantzitsua. Badirudi



Ane Bastida Hesian taldearekin eskainitako kontzertu b

emakumeok ezin dugula hori onartu. Badirudi benetan balio dugula demostratu behar dugula, ikusarazi behar dugula ez gaituztela taldean emakume izateagatik edo fisikoagatik hartu". Bastidaren aburuz, dena ondo egin behar horrek "txiki bilakatzen" du pertsona oholztan, baina, urte dezente pasatuta, jendaurrean "hobeto" sentitzen dela dio.

Musikaren munduan emakumeek presioak jasaten dituztela dio baxu-jotzaileak. "Nik atsegin dut mini-gona janztea, eta jantzi egiten dut, baina inork ez dit esaten galtza elastikoak jantziko al ditudan. Eta nik jantziko ditut galtzak egun batean, eta gona hurrengoan; ez zait batere axola". Bastidak dio beti dagoela zer kritikatu: "Gona motzegia, luzeegia, denak sortzen du hizketarako gaia, eta neskak ere ikaragarri jarduten dugu elkarren bizkar. Batentzat erakargarri egongo zara eta bestearentzat probokatzen, eta objektu sexuala izango zara beste batentzat; izan ere, horrelakoak ere entzun behar izan ditut. Baina ni ez naiz sekula jantzi besteentzat".

Azpeitiarrak bizi izan du une desatseginik,

nahi baino gehiago azken urteotan: "Lerdokeria pila bat entzun ditut, soberan zeudenak asko, eta askotan pentsatu izan dut zergatik ez diedan erantzun. Burua jaitsi izan dut, zer egin ez nekiela pasatu izan ditut kontzertuak, oihuka ari zirelako. Kontzertua izorratu izan didate, eta, handiena, gaizki sentiarazi naute. Eta berriaz betikora goaz, geure buruari betiko galderak egitera. Galanta da, gero, errua geure buruari botatzen bukatzea".

Bastidak dio musikarena ez dela batere mundu parekidea, eta hasterako bazuela horren berri. Hark dio kontzerturo erakutsi behar izaten duela baxu-jotzaile dela. "Askotan galdetzen zidaten noren neska-laguna nintzen, nori laguntzera joan nintzen, edo, gehienez, piano-jotzailea edo abeslaria al nintzen. Eta jendea etorri izan zait kontzertuen ostean baxua nola jo behar dudana esatera. Baina jende hori joango al zen gizon batengana azalpenak ematera? Gustura hartzen ditut iradokizunak, baina ja zalantzan jartzen dut ez ote diren nigana etortzen emakumea naizelako".

Musikaren mundua barru-barrutik ezagu-

tzen ari da Bastida azken urteotan, eta gustura badago ere, argi du: "Lan pila bat eskatzen du musikagintzak, eta asko ematen du, baina ez bizitzeko adina".

OLATZ PRAT

||| **Taldeak.** Uharri bikotea, Zuria & Beltz, Karelean, Lantz eta Sortuko dira besteak ikuskizuna. ||| **Instrumentua.** Ahotsa.

"Gizarteko estereotipoak raitsi nahian gabiltza"

Etiket datorkio musikarako zaletasuna Olatz Prati (Azpeitia, 1984), gurasoek transmititu zioten-eta musikarekiko maiatasuna. Umetatik musika eskolan eta koruan aritu ondoren, jendaurrean, aurreneko, Jagoba Astiazaranekin kantatu zuen, Uharri bikote bezala. Geroztik, hainbat taldetan zein proiektutan aritu da: Zuri & Beltz jazz bikotean, Kareleanen, Lantzen eta Sortuko dira besteak proiektuan, beteak besteak.

Oholtzaren gainean esperientzia du azpeitiarrak, eta dio gizarteko presioen aurrean hainbat estereotipo "eraitsi" nahian dabiltzala emakumeak. "Kanpotik esaten zaigu, nolabait, nolakoak izan behar dugun, baina itxura kontuaz gain, oholztan ez naiz sentitu inoiz desberdin emakume izateagatik. Esaterako, maki-latzeko eta apaintzeko neure denboratxo hartuta igotzen naiz oholtzara beti, horrek segurtasuna ematen didalako". Eta gaineratu du, urte guztian, inguruan izan dituen "emakume guztiak" bere moduan izan direla. Gizonetan denetik dagoela adierazi du Pratek: "Batzuk goizean etxetik atera diren kamisetarekin igotzen dira agertokira; beste zenbaitek, berriz, alkandora plantxatu berria ekartzen dute".

Itxuraren kontuarekin jarraituz, azpeitiarra "beti saiatu" da emanaldietan "normal samar" jantzen. "Noski, garai oso desberdinak dira norberak 20 urte izan edo 30. Lehen bai, soineko estuak edo niki motzak eramaten nituen, gorputza pixka bat nabarmentzeko. Orain, kamiseta zenbat eta luzeagoa izan, hobe! Jantzeraren kontuan, musika estiloak berak eramaten zaitu irudi batera, oholztan izan nahi duzun jarreraren arabera.

Euskal kantagintzan bidea zein emakumeek zabaldu duten galdetuta, Pratek adierazi du Ez Dok Amairu mugimenduan hainbat emakume indartsuk borrokatxo egin zutela, beraien lekutxo egiteko. "Gero, nik uste dut Emarock proiektuak bidea asko zabaldu duela. Saioa Cabañas *Gautilunak* argazkilaria musika pa-





Olatz Prat abeslaria. ||| Aintze Agirrezabala

noramako hainbat emakumeren argazkietatik abiatutako erakusketa eta proiektua da Emarock. Eta horrek, neurri handi batean, itzalean zeuden emakume asko argitara ekarri ditu, ikusgarri egin ditu". Izan ere, Praten ustez musikarena bada gizonen mundua. "Beti esaten da musika eskolak neskaz beteta daudela, baina, gero, edozein jaialditako kartela hartzen duzu eta musikarien %95 gizonak dira". Nolanahi ere, gaineratu du oholztan emakumeak proportzioan gutxiago egonagatik, daudenak ez daudela "gutxietsita edo bigarren planoan. Iruditzen zait, gaur egun, agertokiko lehen leerroan pertsonalitate eta indar handiko emakumeak daudela: Anari, Niña Coyote, Miren Narbaiza, Aiora Renteria, Zalao Urain...". Beti ere, esperientzia pertsonala kontuan izanda, Pratek esan du emakume izateagatik inoiz ez dela sentitu bigarren mailako, eta publikoak ere oso ondo zaindu izan duela beti. Ez dut diskriminaziorik jaso; justu kontrakoa, oso mimatua sentitu izan naiz beti".

Historian zehar, emakumeen gehiengoak lanari uko egin izan die, familia zaintzeko. Prat duela urtebete izan zen ama, eta bere kasuan "oso ondo" moldatu da, une hartan ez zuelako proiektu potolorik esku artean. "Baina proiektu handi bat eta amatasuna aldi berean tokatu balira, ba, agian, erabaki bat hartu beharko nu-

keen". Kontziliazioari dagokionez, esan beharrik ez da oraindik ere urrats asko daudela egiteko, baina Pratek adierazi du bere kasuan, behintzat, "erabaki pertsonala" dela, eta "ez gizartearen erabakia".

Aurrera begira, musikaren munduan emakumeak bere lekua izaten jarraitzeko "erronka nagusienetako" bat "errespetua irabazten segitzea" da Praten ustez: "Arlo guztietan bezala, musikan ere egon daitezkeen espresio maxistei aurre egin behar zaie".

MAIALEN BASTIDA

||| Taldea. Erokmeri. ||| Instrumentua. Aho-tsa.

"Jendeak pentsa zezakeenak kezkatzen ninduen hasieran"

Erokmeri taldea 2015. urtean sortu zuen unibertsitateko lagun talde batek. "Batek gitarra jotzen zuela, besteak trikitia... eta halaxe sortu genuen taldea pintxo-poteo batean", azaldu du Maialen Bastida (Azpeitia, 1995) taldeko abeslariak. Haren arabera, Arrasateko Mondragon Unibertsitatearen egunean jotzea zen beraien asmoa, baina harrezkero zapaldu dute plazarik.

Bastida "gustura" dabil erromerietan mur-

gilduta, taldean "oso giro ona" dutelako. "Herri herri ibiltzea ederra da, eta baita taldean halako giroa izatea ere". Abeslariak aitortu duenez, oholztara lehen aldiz igo zen eguna berezia izan zen. "Ni, izatez, pertsona oso-oso lotsatia naiz, eta oholztara igotzea harrigarria izan zen bai neuretzat eta bai ezagutzen nauentzat". Halere, "ondo eta gustura" sentitu zela dio. "Afizioz hasi nintzen kantuan, eta afizioz jarraitzen dut. Horregatik sentitzen naiz eroso oholztan". Halere, hasieran, "jendeak pentsa zezakeenak" kezkatzen zuen abeslari gaztea. "Askotan, horrexegatik ez dugu ematen pausorik, jendeak 'zer egiten du horrek hor?' galdetuko duela pentsatzen dugulako, baina aurre egin behar diegu halako burutzioei". Bastidak dio presiorik ez duela sekula sentitu itxurari dagokionez eta: "Ni kontzertuetara normal-normal joaten naiz, akabo".

Azpeitiarrak dioenez, baina, bestelako kontuengatik "gaizki" pasatu izan du agertokian: "Jendea animatzen, dantzan eta kantuan ikusten badut behean, gustura sentitzen naiz. Baina, batzuetan, akatsak egiten ditut edo abestiaren hitzak ahazten zaizkit, eta une horiek...". Haren ustez garrantzitsuen "lasai egoitea" da, eta gaizki pasatu izan duen uneei buelta ematen ere badaki: "Horrelakoak ere gertatzen dira". Dagoeneko laudorioak entzuterako "ohitu" dela dio: "Entzuten ditut komentarioak, batzuetan tontokeriak, baina errespetua galtzen ez duten bitartean... Eskeriaz kontzertua eskaini genuen batean, ezagutzen ez nuen mutil bat etorri zitzaidan hurrengo egunean egun-pasa joango al ginen galdezka. Horrelakoak ere badira, eta, tira".

Bastidarentzat erreferente diren erromeria munduko musikariak emakumeak dira. "Beste edozein musika motatan talde bat esan, eta, normalean, burura etortzen zaidan lehen pertsona gizona izan ohi den bezala, erromerian emakumeak datorzkit burura". Haren ustez, oso desberdina da emakumeen presentzia musika motari dagokionez. "Erromerian badi-ra neskek soilik osatutako taldeak: Ezten Giro, adibidez". Bastidak uste du "zeharo zaila" dela bateria edo baxua jotzen duten neskak aurkitzea: "Gizartean maskulinizatutako musika tresnak dira horiek, baina badi-ra bateria edo baxua jotzen duten emakumeak, Ane Bastida kasu, eta erromeria taldeetan are gehiago". Horregatik, bera oholztetara iristerako, erromerietan emakumeek bidea urratuta zutela uste du. "Erreferente izan dira niretzat Alaitz eta Maider edo Maixa eta Ixiar. Horiek bidea ondo baino hobeto zabaldu zuten. Horregatik, niretzat ez da zaila izan musikaren mundura

salto egitea; gehien kostatu zaidana lotsa alde batera uztea izan da". Azpeitiarrarentzat Zea Mayseko Aiora Renteria da beste erreferente-etako bat: "Asko gustatzen zaizkit bai taldea eta bai abeslaria. Bertsolaritzan, berriaz, Maialen Lujanbio dut gustuko. Eta bi emakume horiek lehen lerroan ikustea normala da gaur egun, baina lehen ez. Bi artista horien gisako emakumeek ahalbidetu dute emakumeak kulturaren lehen lerroan jartzea eta beste hainbat emakume urratsa egitera animatzea".

AMAGAR

|||**Taldeakideak.** Amaia Garmendia eta Garbiñe Odriozola. |||**Instrumentuak.** Gitarra eta ahotsa.

“Kantuan aritzeagatik, ez geunden gaizki ikusita”

1970eko hamarkadaren erdian hasita, herriz herri ibili ziren emanaldiak eskaintzen Amaia Garmendia (Azpeitia, 1953) eta Garbiñe Odriozola (Azpeitia, 1955). Izatez ez ziren kuadrillakoak, kaletik ezagutzen zuten elkar biek, baina gitarra jotzea eta kantatzea zuten gustuko, eta afizio horrek elkartu zuen Amagar bikotea. Garmendiaren esanetan, garai hartan, “musikaren mundua, batez ere, gizonen arloa zen”, baina emakumeak izanagatik, plazetan entzuleen “harrera ona” izan zutela gaineratu du. “Batean eta bestean kantuan aritzeagatik



Garbiñe Odriozola eta Amaia Garmendia Deban. |||**Garbiñe Odriozola**

ez geunden gaizki ikusita. Gu bezala ibiltzen ziren Bermeoko Lupe [Ana Lupe Fernandez], Lurdes Iriondo, Estitxu [Estibaliz Robles]... Zentsurarekin arazo gehiago izaten genituen!”, dio Garmendiak.

Garaiko euskal abeslari ezagunen kantak ez ezik, beraiek sortutakoak ere abesten zituztela azaldu du Odriozolak: “Ez Dok Amairu mugimenduko abeslariak genituen erreferentzia, Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi... Eta geuk idazten genituen letretan bizitzako gorabeherak islatzen genituen: politika,

euskara, maitasun kontuak, animaliak... Amaiak bigarren ahotsa egiten zuen, eta nik lehenengoa”.

Batean eta bestean kantatzeagatik dirurik ez zutela irabazten dio Garmendiak: “Bazkariaren edo afariaren truke aritzen ginen, eta gasolina ordaintzen baziguten, gustura”. Han eta hemen kantuan pasatu zituzten urte haietako pasadizoak hamaika dituzte. Garmendiaren esanetan, Markinako dantzaleku batean abestu ondoren, etxera nola itzuli ez zekitela, zabalik aurkitu zuten karrera bateko eskaileretan lo egin zuten behin. “Goizeko autobusean, gitarra soinean, eguna argituta Azpeitira iritsi ginenean, Garbiñeren aita gurutzatu genuen”. Odriozolak dio “sarritan” goizeko ordu txikietan etxeratzen zirela, eta “askotan” gurutzatu zirela aitarekin, hura “ehizera joan zalea” zen eta: “Amaiaren aitak *Azpeitiko neskabanderak* deitzen zigun”.

Garai hartan ohikoa zen lege, ordea, ez kontzera zihoan emakume gehienek lana uzten zuten, familiara dedikatzeko. Garmendiak adierazi duenez, “Amagar bikotearen ibilbidea bukatu izanak zerikusi zuzena du Garbiñe ezkontzearekin”. Odriozolaren esanetan, Debara ezkondu eta ama izan zenez, “entseguekin eta jarraitzeko zailtasunak genituen. Hozten joan zen kontua”.

UNAI IRUKOA

|||**Taldeakideak.** Arantxa Frantzesena, Mari Karmen Otaegi eta Maria Jesus Arregi. |||**Instrumentuak.** Ahotsa.

“Gizonak bagina, errazago jarraitu ahal izango genuen”



Maialen Bastida Erokomeriren kontzertu batean. |||**Angel Olabarria**

Musikaren munduan emakume askorik ibiltzen ez zen garaian, kanturako afizioak batu zuen hirukotea. Antxieta taldean abesten zuten, eta entseguen ostean, askotan gitarra hartu eta kantuan aritzen ziren. "Gu beti kantuan", diote. Jose Mari Altuna zuzendariak hirukote bat osatzera animatu zituen, eta halaxe egin zuten: Mari Karmen Otaegi (Azpeitia, 1946) izango zen aurreneko ahotsa, Arantxa Frantzesena (Azpeitia, 1947) bigarrena eta Maria Jesus Arregi (Azpeitia, 1945) hirugarrena. 1966-1967 ingurua izango zen orduan.

Pixkanaka, indarra hartuz joan zen taldea: dantzalekuetan abesten hasi ziren, Gau Txorin zein Bergarako Ariznoan; jaialdietan ere bai, herri txikietako festetan... Edozein lekutara animatzen ziren. "Orduan, euskaraz kantatzea puri-purian zegoen, eta joaten ginen tokira joaten ginela, bete egiten genuen aretoa", azaldu du Otaegik. "Madrilgo egunkari batean irten ginen, Television Españolan ere bai..." oroitu dute, harro. "Mundial pasatzen genuen".

Atzerrian bakarrik ez, mutilen artean ere bazuten arrakastarik. "Mutilak-eta atzetik izaten genituen", gogoratu dute barrez. "Fraide batek gutun bat ere bidali zigun Afrikatik; gurekin maiteminduta zegoen", erantsi du Otaegik. Arregik gogoan du mutil-laguna nola joaten zen kantura joaten zen leku guztietara berarekin. "Nobioak-eta beti etortzen ziren gurekin *sala de fiestas*etara. Ea norekin egiten genuen dantzan edo, *en fin*... Pixka bat kontrolatzen gintuzten".

Gizonak nagusi ziren munduan, oztoporik ez zutela aurkitu diote. "Keba. Guk ez genuen sumatu, behintzat". Herritarren aldetik ere, trabarik ez. "Denak zoratzen egoten ziren gu entzuteko. 'Noiz kantatu behar duzue?', galdeztzen ziguten".



Arregi, Otaegi eta Frantzesena. **Ihintza Elustondo**

Bestelako trabarik topatu zuten bidean, ordean: zentsurarena. Guztira, bost disko kale-ratu zituzten, eta horietako bat zentsuratu egin zieten. "Ez zuen beste munduko ezer esaten, baina, euskaraz zen eta... Horiek ziren trabak, mutilen kontuak baino gehiago", adierazi du Frantzesenak.

Oroitzapen oso politak gorde dituzte, baina gogoan dute lotsa pasatu ere egiten zutela. Frantzesenak eskuak izerditan izaten zituela dio, eta gitarra defentsa handia zela berarentzat. Otaegik eskuekin zer egin ez zuela jakiten azaldu du. "Soberan izaten nituen. Oso urduri jartzen nintzen, eta, abestea amaitzean, negar saioa egiten nuen". Arregik, berriz, bera lasai egoten zela azaldu du. Hori bai, behin oholta zapalduta, hirurek nabarmendu dute "hazi" egiten zirela.

Joan-etorriak izan ziren taldean, eta, azkenean, 1973 inguruan amaitu zuten ibilbidea, 25-26 urte inguru zituztela. Zergatik? "Ezkondu, umeak...", azaldu du Arregik. Otaegik dio beragatik izan balitz jarraituko zuketela. "Niri etxean esan izan balidate lagunduko zidatela, umeekin ez kezkatzeko eta segitzeko, gustura segituko nuen baina...", adierazi du Frantzesenak. "Baina ez zen gertatu hori", erantsi du Otaegik. "Momentu hartan planteatu ere ez genuen egiten. Bi ume nituen, eta nire bete-beharra haiek zaintzea zen. Ni pozik nago egin dudanarekin, baina gaurko egunean gizonari esan egingo niokeen umeak bionak direla eta haiez bera ere arduratzeko, abesten segitu ahal izateko". Ondorio bat atera dute: "Gizonak izan bagina, seguru errazago jarraitu ahal izango genuela; hori zalantzarik gabe".*

BIYONA
BERRIKUNTZAK-REFORMAS
www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Abercaino poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumaiá

Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

San Juan, 16 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Gestoga Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Historia, memoria, ahanztura

Memoriaren gehiegikeriak (*Les abus de la memoire*) lanean Hitler edo Petainekin zerikusia dutenak xehetasunez gogoratzeak euren zaintzaile-zeladari bilakatzen gaituela dio Todorov. Eta, gainera, hurbilagoko mehatxuak ignoratzen laguntzen digula. Vichypeko gizakiaren ahuleziak salatzeak memoria eta justiziaren aldeko borrokalari kementsu bezala agertzen laguntzen digula, geure burua inolako arriskutan jarri gabe eta egungo miserien aurreko geure balizko ardurak asumitzera derrigortu gabe.

Gogor ari gara memoriaren lan horretan azken urte gutxitan. Deigarria da gure artean ditugun biktimekikoak, urte luzeetan ikusi nahi izan ez direnekikoak, aitortzeko garaia ote den erabaki dugunean nola iraganeko, iraganagoko, biktimak gogoratzeari heldu diogun. Jakina da iraganeko biktimen aitopena eta omena lasaigarria zaigula eta egun ditugunekiko ardurak hartzea, gutxienean ere, deserosoa.

Ez dakit nik oroimena, edo memoria, deitu diogun horretako ariketak gure gizartearen etorkizun sanoago batera bideratuko gaituen. Nago nire artean, geure buruen kontsolatze eta lasaitze horretaz aparte, mesede gutxi datorkigula. Benetan uste dut memoria baino historia, historia kanoniko bat, dela beharrezko duguna. Pasatu zena, eta pasatu dena, objektiboki kontatuko digun zerbait, baina ez gaude lanerako. Nahiago dugu oroimena erabili izan ez ginen hartan geure burua kokatuta uzteko. Ikusiak ikusita oroimena interpretazio moduko bat da, historian egiten dugu zati baten aukera. Historia beste kontu bat da.

Ez al da hobe ahanztura?

Gerrazibilismoak hartu gaitu gure hauetan. Eskuzabala iruditzen zaigu, gerrate zibileko galtzailetakiko biktimen biktimatasuna aitortzea eta muturren aurrean bizi izan dugun

|||||||ramon etxezarreta|||

|||Nahiago dugu oroimena erabili izan ez ginen hartan geure burua kokatuta uzteko



arazoaren aurrean posizio hartzeari izkin egitea. Publikagarriago zaizkigu 36ko izen abizenak, halako informazioarekin zenbaitetan, egungoak datuen babesaren isiltasunera kondenatzen ditugun bitartean. Hutsa guztia, kontatzen zaigunak, dugunak, sinesgarritasunaren parametroak beteko balitu!

36ko gerratea zer izan zen seguru jakitea ez da erraza jarri Azpeitia alde honetan. Ez da falta genozidioa izan zela aho handiz esaten duen euskal odoleko amerikarrik. Ez da falta, diru publikoak ordainduta, *Eusko Gudarostea - eusko abertzaleak (sic)*, *armak eskuan, Espainiako militarren (sic) altxamenduaren aurka* izenburuarekin kalera ateratzen den dokumenturik.

Geure historia jakiteko hain saio kaskarretan enpeinua jartzen jarraitu behar badugu pentsatu egin beharko dugu memoria ariketak kalterako ote diren mesederako baino, eta, zenbaitek dioten bezala, ez ote den hobe ahanztura.✕



Herrigunea indartuz

Loiolak ez ezik, herriguneak indar handia duela erakustea da erakundeek duten erronka nagusia. Hainbat proiektu dute eskuen artean. 📌👁️ Nora Alberdi

Bisitari asko eta asko gertatzen da Azpeitira, normalean, Loiolaz zerbaitz entzun duelako, txikitan egon zelako edo kasualitatez iritsi delako. "Hemengo gastronomia eta paisaia asko gustatzen zaizkie, eta txundituta gelditzen dira mendia hain gertu izatearekin, berdeguneekin, azpeitiarrekin eta hizkuntzarekin", azaldu dute Alaitz Aguadok (Azpeitia, 1977) eta Oihana Aranbarrik (Azkoitia, 1978), Azpeitiko eta Loiolako turismo bulegoetako arduradunek. "Gure indargunea natura da, baina, horrez gain, eraikin historikoak ditugu eta Loiola bera Gipuzkoako bigarren eraikinik esanguratsuen da", dio Agustín Lizarralde (Donostia, 1962) zinegotziak.

Herriko turismo bulegora Espainiatik heltzen da bisitari gehien, batez ere, Madrildik eta Bartzelonatik. Abuztuan, berriz, atzeritik jende gehiago etortzen da. Datuei begiratuz gero, Loiolara hurbiltzen diren bisitarien %16 Euskal Herrikoak dira, %50 Espainiakoak eta %34 atzerrikoak. Kanpoko bisitarien artean, asko dira frantziarrak, eta Asiatik gero eta jende gehiago etortzen da. Inaziotar Bidea, berriz, 500 bat lagunek egin dute. Horiek aterpetxeetan egin nahi izaten dute lo, eta Urola Erdiak hainbat aukera eskaintzen die horretarako.

Eskaintza zabala

Egoera soziopolitikoa lasaitzeak igoera eragin du turismo datuetan, eta bisitarien zat es-



Agustín Lizarralde Turismo batzordeburua eta Alaitz Aguado turismo teknikaria. ■ Nora Alberdi

kaintza asko zabaldu dute erakundeek. "Urtebete daramagu Azpeitia indartzen, eta, pixkanaka-pixkanaka, emaitzak nabaritzen ari gara bai Azpeitian eta bai bailaran", dio zinegotziak. Aranbarrik dio uztalean eta abuztuan norbako asko planik gabe iristen dela Loiolara, eta turismo teknikariak berak antolatzen dizkiela planak. "Taldea etortzen direnek, berriz, antolatuta izaten dute eguna, eta, gehienek, Loiola soilik bisitatzeko dute". Horregatik, horiek herrigunera erakartzea da turismo alorrean lan egiten duten eragileen erronka.

Azpeitira datozen bisitarien gehiengoa egun-pasa etortzen da; kostako herriren batean hartzen dute ostatu, eta eguraldi kaskarra egiten duenean etortzen dira herrira. Turismo teknikarien arabera, eraikuntza historikoez gain, eskaintza zabala dago Urola bailaran: tabernak, jatetxeak, kultur eta kirol ekitaldiak, natura ibilbideak... Horregatik uste dute bisitariak gero eta egonaldi luzeagoak egiten dituztela. "Gaur egun gero eta jende gehiagok nahi izaten du hemengo hoteletan ostatu hartu eta hemendik irten gainerako herriak ezagutzera".



Oihana Aranbarri turismo teknikaria. |||N.A.

Turistak Loiolatik Alde Zaharrera joatea da arlo horretan dabilzan eragileen erronka nagusia, eta "bide onetik" doazela dio Aguadok: "Nabaritzen da, pixkanaka-pixkanaka, Loiolako etorbidean bisitari gehiago ibiltzen dela". Aldaketa horren gakoak bi direla uste du: alde batetik, herriguneko turismo bulegoa irekitzea; eta, bestetik, Loiola Azpeitiko gune bat dela jakinaraztea.

Herritarrek turismoaren parte

"Iazko udan, bulegoa ireki genuenean, herritar asko hurbildu zen bertara, eta Izarraizko mapa berrituak ere harrera ona izan zuen", azaldu du Aguadok. Horrez gain, lagun talde bat bisitan etorriko zaien herritarrek etorri izan zaizkigu haiei zer erakutsi diezaioketen galdezka. Atzerritarrek ez ezik, Loiolako turismo bulegora herritarrek ere joaten direla dio Aranbarrik: "Azpeitiar eta azkoitiar ugari etortzen da Inaziotar Bidearen inguruko informazioaren bila". Uda partean eskaintzen dituzten bisita gidatuak ere bertako jende asko mugitzen dute. Horregatik, turismo bulegoko teknikariek diote kanpoko bisitarien-tzat eta edozein herritarrentzat dituztela zabalik ateak.

"Turistek gure herrian dagoen aberastasunaz ohartzeko aukera ematen digute", esan du Lizarralde, eta horiek ondorio sozial eta ekonomikoak uzten dituztela azaldu du, "beti ere, bisitari kopurua zainduz". Horrez gain,

Aguadok azpimarratu du herriari bizia emate diotela, batez ere, abuztuan. Gainera, euskara eta herritarrek erdiguneko jarrita, *Azpeitibizi.eus* webgunea eta eskuko telefonoetarako APPa sortu ditu udalak. Ekonomia indartzeko esfortzua egiten ari da udala, eta agerikoa da erakundeak turismoaren sektorea bultzatzeko duen konpromisoa; izan ere, "turismo bizia" bultzatzea da haren asmoa. "Jendea Azpeitia ezagutzera erakarri nahi dugu. Horretarako, gure ondareaz gain, herritarrek eta euskara, gure errealitate soziolinguistikoa, jarri nahi ditugu erdiguneko. Herri bizia eta euskalduna da gurea, eta hori ezagutu dezaten erakarri nahi ditugu bisitariak", azaldu du Eneko Etxeberria alkateak.

Etorkizunean, zer?

Lizarralde dio aurreko agintaldiaren hasieran zehaztu zituzten eginbeharrak gauzatzen ari direla: "Herriguneko bulegoa ireki genuenetik bisitarien profila, eskaria eta eskaintza aztertzen ari gara, zerbitzuak haiei egokitzeko. Beraz, turismoa indartzeko plan estrategikoa hastapenetan dago".

Bestalde, gune turistikoaren gaineko informazioa helarazteko sei panel jarri ditu udalak herrian, asteotan: Loiolan, anbulatorioan, trenaren museoan, Madalena auzunean, parrokian eta herriko plazan. Panel horietan mapa bat ikus daiteke, eta bisitariak informazioa emateaz gain, une horietan non dauden jakinarazten diete. Gainera, ordubetearen egin dezaketen herriguneko ibilbidea zehaztuta dute paneletan.

Basazabal jauregia herriguneko eraikin zaharrena da, XIV. mende amaierakoa zehazki. Etxea pribatua izan zen 60ko hamarkadara arte, eta 1985. urtean pixka bat zaharberritu zuten. Gaur egun, udalaren helburua da jau-regiari balioa ematea, eta, ondoren, balio erantsia ematea, probetxua atera ahal izateko. Aurreko agintaldietan hotel izateko edo kultur etxe bihurtzeko proposamenak egin zituzten, baina eraikinaren izaera errespetatzeko asmoz, "erabilera egokia" eman nahi dio egungo udalak. Hori dela eta, lehen fasea bukatuta, eraikinaren barrualdea eraberritzen ari dira. Abendua bitartean lan orokorrak egingo dituzte, eta, ondoren, baliabidez hornituko dute. Lanak bukatzean, hainbat gune izango dira jauregian, hala nola turismo bulegoa, interpretazio gunea eta askotariko ekintzak egiteko gela. Basazabal datorren udarako martxan jartzea aurreikusten du udalak.✱



Sanagustinak, Goikokalen

Bi eguneko jaiei hasiera emango dien txupinazoa abuztuaren 26an, zapatuan, jaurtiko dute. Aurten, berrikuntza bezala, umeentzat zezen txikiak eta paella jana izango dira.  Ainitze Agirrezabala

Goikokaleko auzotarrek San Agustin festak ospatuko dituzte abuztuaren 26an eta 27an. San Agustin eguna, izatez, astelehenean da, hilaren 28an, baina asteburuan jendearen parte-hartzea handiagoa izango dela iritzita, egitaraua larunbatera eta igandera aurreratu du festa batzordeak.

Bi eguneko egitarauari hasiera emango dion txupinazoa abuztuaren 26an jaurtiko duten arren, bezperan dardo txapelketa azkarra jokatu dute Fideo de Mileto tabernan. Bestalde, aurten berrikuntza bezala, umeentzat zezen txikiak izango dira zapatuan plazan, 11:30ean. Ondoren, mokadua eskainiko dute Goikokaleko plaza txikian, doan: txorizoa, hirugiharra, ardoa eta sagardoa izango dira. Arratsaldean, berri, Mus Txapelketa azkarra jokatu dute Sanagustinen. Izen ematea egunean bertan egin beharko da kulturagunean, bikoteko 20 euro ordainduta. Eguna amaiera emateko, trikipoteoa egingo dute 20:00etan hasita, eta, gero, afaria Sanagustinen. Afaltzeko aurrez eman behar da izena kulturagunean. Gauean, DJ saioa izango da Fideo Mileton.

Paella jana

Hurrengo egunean, abuztuaren 27an, jarraituko du festak. Goizean goizetik hasita, txistulariek goiz

III DATUAK

III **Zer.** Sanagustinak, Goikokalen. III **Eguna.** Abuztuak 26 eta 27 (larunbata eta igandea). III **Tokia.** Goiko kale. III **Antolatzailea.** Goiko kaleko festa batzordea, Sanagustin kulturagunea eta Azpeitiko Udala.

eresiarekin ekingo diote egunari, 09:00etan. Ondoren, 10:30ean, Goikokale auzoan hildakoen alde meza izango da Miserikordian. Berrikuntza gisara, auzotarren artean paella egingo dute, eta, ondoren, Goikokaleko plaza txikian jango dute. Arratsaldean, berri, umeentzat jolasak izango dira: zaku lasterketa eta irinetan ezkutatutako objektuak aurkitu beharko dituzte, besteak beste.*

III GOIKO KALE, JAIETAN MURGILDUTA

20

euro. Bikoteko ordaindu beharreko zenbatekoa da, abuztuaren 26an jokatu duten Mus Txapelketa azkarrean.*



Ume jolasak izango dira Goikokaleko festetan.  Eneritz Albizu Lizaso

III BESTERIK

1 Mateo Txistu, pantaila handian Aurten beteko dira 30 urte Azpeitiko zineklubak, Agustin Arenasek gidatuta, *Mateo Txistu* film laburra grabatu eta aurkeztu zutela. Apaiz ehiztariaren istorioa eskainiko dute orain, eta zuzendariak hitzaldia emango du. III **Eguna.** Irailak 17 (igandea). III **Ordua.** 19:30. III **Tokia.** Soreasu. III **Antolatzailea.** Zine kluba, Kulturaz, Azoka Herriitik.

2 12x12 argazki erakusketa

Azpeitiko Argazki Elkarteak iazko bigarren sehirekoan egindako barne lehiaketako argazki irabazleak izango dira ikusgai.

III **Eguna.** Irailaren 5etik 19ra. III **Tokia.** Sanagustin. III **Antolatzailea.** Kulturaz.

3 Ikusgai, Olatz Alkortaren lanak

Margolari azpeitiarrak bere artelanekin osatutako erakusketa jarriko du.

III **Eguna.** Irailaren 19tik urriaren 3ra. III **Tokia.** Sanagustin. III **Antolatzailea.** Kulturaz.*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

IKA argi lanak s.l. Instalakuntza Elektrokoak
 Urtz: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com
 20730 AZPEITIA

Alertza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
alertzaautoak@telefonos.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

**EROSKI****bidaiak**

Anetsetan? Egizu hegari!

Hegaldiak Bilbotik

MADEIRA **1025 Euro**

Irteera: Abuztuak 28.

8 Egun. Jatorduak eta txangoak barne.

ALSACIA, SELVA NEGRA ETA SUIZA **1079 Euro**

Irteera: Abuztuak 30.

8 Egun, pentsio erdian. Txangoak barne.

SICILIA **1111 Euro**

Irteera: Irailak 6.

8 Egun, pentsio erdian. Txangoak barne.

INDIA **1980 Euro.**

Irteera: Irailak 6.

14 Egun. Jatorduak eta txangoak barne.



Jose de Artetxe Kalea, 14
Azpeltia. Tf.: 943151912


HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

* Rallye gidari azpeitiarra

SUDOKUA



||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK |||||

||| JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Irailak 25 (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.

1



2



||| LEHIAKETAREN ERANTZUNAK |||||

1 HORIEK BAI AHOLKU...

2 TXIKIA ETA BOROBILA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

I	U	•	L	V	N	I	D	R	V	K	•
O	G	N	A	R	U	D	•	A	M	V	Z
•	E	I	•	U	T	A	S	T	A	L	•
V	L	O	R	•	S	•	A	E	R	E	N
I	P	•	A	K	A	K	•	I	A	B	•
S	•	A	I	A	•	A	I	D	N	A	H
V	L	O	Z	O	I	R	D	O	•	V	•
K	V	N	E	R	R	U	V	•			
I	Z	V	R	V	R	E	T	A			
•	V	•	G	•	I	•	O	•			

SUDOKUA

7	8	5	9	1	6	3	4
1	6	9	4	2	8	5	7
8	4	3	6	7	5	9	1
6	7	4	3	1	4	5	8
5	5	4	7	8	9	1	2
9	1	8	2	5	6	4	7
4	9	7	1	4	8	3	6
4	3	1	5	6	4	7	9
5	8	6	9	3	7	4	1

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1

Pedagogoa

2

Bihar arte

||| UZTARRIAREN UZTAILEKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Jose Luis Bastida
Uztarria Komunikazio
Taldearen bazkidea da
aldizkariko 197.
lehiaketaren irabazlea.
Kutxillo urdaitegiak
emandako produktu
sorta irabazi du sari
gisa. Argazkian
lehiaketaren irabazlea,
Kutxilloren oparia
eskuetan duela.



Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

Zubia, eztabaidarako gai

Sanjuandegi eta Etxebeltz-Izarra lotzen dituen zubitik autobusak pasatzeak eta geltokien lekualdatzeak eztabaida sortu dute herrian. Erabakiarekin ados dira batzuk; besteak, berriz, ez.  Erredakzioa

Azken asteetan hautsak harrotu ditu Sanjuandegi eta Etxebeltz-Izarra lotzen dituen zubiak. Zubiak berak baino, zubi horretatik autobusak pasatzeak eta, hori dela eta, autobus geltokietan al-daketak egiteak eragin du ezta-baida herritarren artean.

Uztartia.eus-en autobusez eta horien galekieuz argitaratutako albisteetan hainbat erabiltzaile anonimok idatzi ditu iruzkinak. Batzuek aldaketak ontzat jo dituzte, eta ez dituzte egoki ikusten besteek. Halere, aldaketak mar txan dira dagoeneko.

Uztaiaren 19an hasi ziren autobusak ibilbide berria egiten. Hain zuzen ere, egun hartatik Loiolako etorbideko behin-behineko galelekuak deuseztatuta, igerileku ondoan, Urbitarte auzunean, egiten dituzte geldialdiak autobusek. Hala, Sanjuandegira itzuli dira autobusak, eta aurreantzean Etxebeltz-lazartatik igaroko dira bi norabideetan.



Sanjuandegi eta Etxebeltz-Izarra lotzen dituen zubia. **Mailo Oiarzabal**

lazio apirilean, zubia eraikitze-ko obrak hastearekin batera, San-juandegiko autobus geltokiak Esklabetako elizaren aurrera pasatu zituen udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostuta. Zubiaren lanak bukatzen ari zirela hasi zen eztabaida. Herritar batzuek geltokiak Esklaben aurrean mantentzea eskatu zioten udalari, eta igerileku aurrean mantentzea beste batzuek. "Egoeraren jakitun", eskaerak eta proposamenak jasotzeko, herritarrekin bilera irekia

egin zuen Udalak ekainaren 7an. Udalak azaldu duenez, bi ibilbideak dira teknikoki "egokiak", baina herritarren artean "adostasun nahikorik ez" zela-eta, Sanjuandegiko geltokia berriz martxan jartzea erdietsi zuen erakundeak. Dena den, parte-hartzerako ordenantzak arautzen dituen pausoen bidez, herritarrek proposamenak egin ahaliko dituztela esan du udalak.

Zubi berria uztailaren 14an
ireki zuten ofizialki.✖

|||EFEMERIDEAK|||

1870

Gazte karlisten altxamendua. Herriko gazte karlisten altxamendua izan zen abuztuaren 29an.

1902

Ildefonso Gurrutxaga jaio zen. Azpeitiko historialaria abuztuaren 23an jaio zen.

2016

Espainiako bandera.

Udaletxeko etxaurre nagusian jarri zuen udalak, EAEko Auzitegi Nagusiak behartuta.

 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak.*

Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur
Koordinakundea.*

BIDEOAK|||||



Udalekuetako batukada saioa.✖

KIMU BAT
GARDEN

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea, Azpoitia
943 15 00 85

Integralak

Energia lortzeko beharrezkoak ditugu karbohidratoak. Egunero edo astero, ogia, pasta, arroza edo bestelako zerealak jaten ditugu, eta horien bertsio integralak kontsumitzeak dakartzan onurez jardun nahi dut oraingoan.

Batetik, zuntz kantitate handiagoa dute; eta, bestetik, integralek dituzten zuntz disolbaezinek bolumen fekala handitzen dute, hestearen mugimendu naturala estimulatuz eta erregulatuz; libratzen laguntzen dute. Ez ahaztu gure bigarren burmuina dela!

Ikerketek obesitate indize txikiagoekin erlazioan dituzte karbohidrato integralak, eta gaixotasun kardiobaskularrentzat eta diabetearentzat emaitza lagungarriak dituzte.

Energia modu osasuntsuagoan iristen zaigu, odolean azukrearen maila gehiegi aldatu gabe; hau da, kalitatezko energia da, iraupen gehiago duelako eta gure metabolismoa ez duelako kaltetzen. Horregatik dira zereal integralak –ez finduak– ezinbestekoak diabetikoentzat. Antioxidanteak, bitaminak, mineralak eta funtsezko beste elementu batzuk modu naturalean ematen dizkigute.

Eta ezin da ahaztu, behin ohitutakoan, askoz ere gozoagoak direla.

Orain, erabakitzeko garaia duzu...

Integralak nahiago?*



aitziber aizpuru

INAXIO ARREGI belar-bolagilea



1. Zenbat kilo har ditzake bola batek?

Ez dut inoiz pisatu, baina hezeak 500 eta ondutak 200 bat edo.

2. Beti eguraldiaren iragarpenaren zain?

Benol! Ona denean denak batera, denak presaka.

3. Eta iragarpenak huts eginez gero...

Tokatzen dira horrelakoak ere, bai, eta agoantatu egin behar.

4. Belar-zulorik gelditzen al da?

Bakarren bat bai oraindik, traktoreak sartu ezin

dituzten lekuetan, baina asko gutxitu dira.

5. Eta zuhatzak?

Bai, badaude oraindik.

6. Zelairik erosoan?

Loiolako Santutegikoak.

7. Eta zailenak?

Pikoak eta bustiak.*

Mailo Oiarzabal

Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 16 16 40
Larriak: 943 16 16 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRISTAS
Jose de Arrese, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Bibi Ocho, 28
Tel. 943-831445
AZKOITIA

IRENE ALTUNA
IONADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

Alar
mertzaria
Loiolako Inazio Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

Senti
OSASUN ZENTROA
fisioterapia - osteopatia - psikoterapia
osasun jarduerak
Jandorik 7, behean - 20720 Azkoitia
Tel. 943 533 729 / 636 462 051 - www.senti.eus

uba
ARQUITECTOS
Arbelaiztegui
Itxaso
Larrea
Gasturi Iñaki
Finanzen administrazioa
Gestio Inmobiliaria
Tel. 943 157 274 Fax. 943 157 275
Enparan Kalea, 45 - 41001 Azkoitia

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfn.: 943 81 50 00
Faxa: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑO
ESKOLA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00
Jose Arteta kalea, 3
943 81 28 08
artediseinu@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Herri sagardozalea

Azpeitiak sagardoarekin duen lotura estua eta aspaldikoa azaltzen duen liburua idatzi du Laxaro Azkunek, Juan Joxe Agirrek lagunduta. 📖 Mailo Oiarzabal

Azpeitian egiten da Euskal Herrian tradizio eta ibilbide luzeenetakoa duen sagardo txapelketa, eta ez da kasualitatea. Antolatzaileek urtero aipatzen duten legez, 50 urte edo gehiago ditu Azpeitiko Sagardo Txapelketak. Aurrenekoen erreferentziak galdu antzera daude, ordea. Hala ere, joan den Santio egunekoa jarraian egin den 45.a izan dela badakite. Eta zenbaki potolo hori baliatu dute Azpeitiak sagardoarekin duen lotura estua erakusten duen liburua plazaratzeko. Uztailaren 22an aurkeztu zuten Laxaro Azkunek idatzi, Juan Joxe Agirrek irudiz jantzi eta Azpeitiko Udalak argitaratu duen *Sagardoa Azpeitian* liburu mardula.

Ez da kasualitatea, ez, Azkunek “sagardoaren kultura” deitzen diona Azpeitian hain errotuta egotea. Liburuaren egileak azaldu duenez, berak ere entzuna zuen garai batean Azpeitian sagardotegi asko zegoela, “tabernak baino gehiago zirela sagardotegiak”. Eta aditzerako erreferentzia horiek baieztatzen aukera izan du liburua osatzerakoan; Joxe Lizasok sagardogileen elkarteari emandako elkarrizketa batetik eta Imanol Eliasen liburuetako aipuetatik eta datuetatik abiatu, eta libururako jaso dituen testigantzekin borobilduta.

Baserritik kalera

“Sagardotegien panorama dezentea azaldu zaigu, gerra aurretik martxan zegoena. Eta,

Joxe Lizasok esaten zuen bezala, gerrak egundoko etena sortu zuen, bai bizitzako ohituretan, bai baliabideetan, baita gizarte harremanetan ere”, kontatu du Azkunek.

“Kuriosoa” iruditu zaio jakitea, “Azpeitian baserri guztietan egiten zela sagardoa, eta sagardoaren kulturari baserriak eutsi diola”. Sagardoa, lehen, sagarra kontserbatzeko egiten zutela dio idazleak: “Sagasti asko izan da hemen, sagar klase asko, gehiegi zaindu beharrik gabe ematen zuena; eta sagar hori kontserbatzeko sistema bat izan da, neurri batean, sagardoa. Jateko txarra zen sagarra sagardoa egiteko primerakoa zela ere deskribituta zegoen”. Sagardoaren bueltan auzolana ere ohikoa zela dio, eta baserri batzuk sagardoa egiten “espezializatuta” ere bazeudela; dolare egokienak zituzten baserrietara eramaten zituzten inguruetako beste baserrietarrek euren sagarrak, sagardoa haietan egiteko.

Sagardoa egitearen ohitura zabaldu hura 1950-1960 ingurura arte mantendu zen Azpeitian, Azkuneraren esanetan. Eta “kuriosoa” dela dio, berriro, “baserrietan gutxitzen joan den bezala, kalean nola sortu den sagardoarekiko zaletasuna”. 1970-1980ko industriaren gorakadarekin lotzen du trantsizio fenomeno hori oñaztarrek: “Mundu guztiak zeukan lana, mundu guztiak egiten zituen astean bi-hiru afari; soziedadek ez zeuden artean hainbeste, baina nonahi zeuden lokalak. Eta

hor garatu da sagardoaren kultura hori. Gero, sagardo taldeetako kontu hura soziedadeetan joan da bideratzen, soziedadeak sortuta edota elkarteetan integratuta. Lagun talde haiek sagardoaren kultura txertatu diete soziedadeei”.

Gaur egun soziedade gehienek sagardoa barriketan ekartzen badute ere, bat agortu ahala bestea, lehen ohikoa zen muztioa ekartzea eta bakoitzak bere lokalean ontzea sagardoa. “Lehia pixka bat ere sortzen zen, zeinek hobea izan; eta hemen afari bat egun batean, hurrena bestean... Oraindik ere mantentzen dute batzuek, baina esango nuke saltsa hori 1980-1990 bueltan talde askotan egoten zela”.

Dolare baserriak

Sagardoaren kultura kaletartzeak ez du esan nahi, hala ere, Azpeitiko baserrietan edari horren ekoizpenarekiko lotura guztiz galdu dutenik. Azkunek dio “harrituta” gelditu direla sagardoa egiten jarraitzen duten baserrien kopuruarekin.

“Sagardoa egiten dutela esaten dutenen zerrendan igoal egongo dira 60, baina horietatik, gaur egun, agian ez dute egingo 30ek edo gehiagok. Sagardoa egiten dutenak, dolarea dutelako; eta beste batzuk, dolarea duten baserrietara joaten direnak, sagardoa egitera, oraindik ere sagastiak dituztelako etxean”. Beren kontsumorako egiten dute sa-

Ateak zabalik

Liburua egiteko herriko soziedade, txoko, sagardotegi eta baserri asko ezagutzeko parada izan dute Azkunek eta Agirrek, eta toki guztietan aurkitu duten adeitasuna nabarmendu eta eskertu nahi izan dute.

"Nik Azpeitiko baserri guztiak ezagutzen nituen, baina kanpotik", dio Agirrek, berak egin zuen *Azpeitiko baserriak* liburuari aipamena eginez. "Orain, ordea, barrutik ere asko ezagutzeko modua izan dut, eta denetan ateak parez pare ireki dizkigute. Oso eskertuta gaude".

Baserriak eta sagardotokiak bisitatzearekin bat, gehienetan sagardoa dastatzea ere tokatu zaie idazleari eta argazkilariari. "Batzuk erraz sartzen direnetakoak, eta beste batzuk ez hainbeste, baina... Edan eta ederra zegoela esan, beti. Nola ez ba!", diote, umoretsu. "Bakoitzarentzat, izan ere, berea izaten da onena".

Joan den irail bukaeran hasi ziren libururako lanean. 80tik gora elkarrizketa egin eta ehundaka argazki atera ostean, argitara eman dute lana.✱

gardoa baserrietan eta, kasu askotan, aste-buruetan-eta gurasoen edo aiton-amonen baserrietan elkartzeko ohitura duten familiak izaten dira, sagardogintza horretarako aitzakiatzat erabiltzen dutenak. "Sagardoa egitea utzita zeukaten asko ere, gurasoek egiten zutena berreskuratu eta hasi dira berriro sagardoa egiten", gaineratu du Juan Joxe Agirrek.

Dolarea etxean duten baserriak ez dira gutxi, beraz, inguruan. Baina dolare baserri esaten zaien egitura dutenak edo gorde-tzen dutenak, Ezkioko Igartubeiti ezagunaren tankerakoak, bi besterik ez dituzte topatu: Nuarbeko Zabalegi eta Urrestillako Antxieta Arbiondonekoa. "Horietan garbi-garbi ikusten da dolare baserri izandakoaren egitura, hartarako egindako eraikuntzak zirela; gero, eranskinak egin eta etxebizitza bezala antolatu zituzten", azaldu du argazkilariak. "XV. eta XVI. mendeetan, hemengo baserri denak horrelakoak izango ziren", dio Azkunek.

Sagardo kontsumitzaile handia

Sagardoa Azpeitian libururako testigantza eman dutenen artean daude Astigarraga eta



1. Soinujoleak, txistulariak eta lagun kuadrilla handia Azillerriko sagardotegiaren atarian, 1947an, Gelatxoren omenaldian. (Pepe Gilen argazkia, Axun Urangak utzita). **2.** 1973ko sagardo txapelketa, kioskoan. (Pepe Gil). **3.** 1981eko txapelketa, Berdura plazan (Agustin Arenas).

Hernani inguruko sagardotegi ezagunenetako batzuen jabeak. Eta haietako batek esana da, Azpeitia izango dela, gaur egun eta batz bestea, sagardo gehien kontsumitzen duen herria. "Eta Azkoitian, aldiz, batere ez" dutela saltzen gaineratu du Juan Joxe Agirrek. Alde nabarmen horrekin ere harrituta gelditu direla diote liburuaren egileek.

Astigarraga-Hernaniko sagardogileek emandako beste datu bitxia da Azpeitian 'emakume sagardoa' deritzona gustatzen dela gehien bat. Garai batean, Donostialdean-eta, bestelakoa omen zen gehien edaten zena, "gogorrakoa". Gaur egun, ordea, 'emakume sagardo' hori da gailendu dena, antza; eta, horrekin, Azpeitiko sagardozaleen gus-tua ere bai.

Kioskotik kioskora

Sagardo txapelketaren ibilbide luzeari dago-

kionez, aldaketak eta eboluzioa nabarmenak dira. 45. urteurrenaren sorburuko lehen edizioa, 1973koa, plazako kioskoan egin zuten, garaiko argazkietan ikusten denez. Izan ere, argazkiez haratago, ez dute orduko informazio asko jasotzerik izan; irudiak ikusita, hori bai, nabarmendu dute "epaileak kanpokoak zirela", gerora ohikoa izan denaren oso bes-tela. 1970eko hamarkadako gainerako edizioen arrastoa jarraitzea ia ezinezkoa egin zaio Azkunerri, datu faltaren eta informazio kontrajarrien artean. 1980ko hamarkadaren hasieran berreskuratu du txapelketaren haria eta, ordurako, Berdura plazaren irudiak dira nagusi. Saninazioen barruan egin zen urte luzez txapelketa kokaleku hartan, Santio eguna Baserritarren Eguna bilakatu eta epaileak plazako kioskora itzuli ziren arte. Azkunek dion bezala, urteekin "indar izugarria" hartu duen txapelketa dela ezin ukatu.✱

TELEFONO ZENBAKIAK**TOKI PUBLIKOAK**

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	02 60 69
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztartaria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (ABUZTUA)

1-4-5-6-8-10-11-14-15-17-26-27

Eizagirre (Azpeitia).
943 81 12 74

19-20-21-24-29-31

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

2-3

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

30

Aranburu (Azpeitia).
943 81 19 49**LARRIALDIAK****112****ODOL-EMAILEAK**Abuztuaren 30ean eta 31n
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: 11:00-20:00 **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan eta Gabonetan: 08:30-14:00 **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI**HONDAKINEN BILKETA.**

Uztailaren 1az geroztik, bolumen handiko hondakinak Garbigunera eramane behar dira. Bestela, Emauseko biltzaileei aurrez deitu (656-78 95 74) eta etxera joango dira hondakinak jasotzera.

7-9-12-13-16-18-22-23-25-28

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

GAUEZ, URTE OSOAN

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49**GARRAIOA**

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztartaria.eus/azpeitia/
autobusak

IÑAKI ANSOLA

Mazolaria

“san sebastian eguneko dianak hunkitu egiten nau”

Duela hiru urtetik da udal korporazioko mazolaria. Saninazioetako desfilea baino gehiago gustatzen zaio San Sebastian eguneko diana.  Elena Margüello

Noiz hasi zinen Azpeitiko jaietako udal korporazioan mazolari ateratzen?

Orain dela hiru urte irten nintzen lehenengo aldiz. Langabezian nengoen sasoi hartan, eta udalaren festetako lan poltsan izena eman nuen. Pentsatzen nuen herritar askok emango zuela izena, eta ez nuen uste deituko zidatenik, baina irteteko prest al nengoen galdetzeko deitu zidaten udaletik izena eman eta gutxira.

Atera aurretik zer zenekien mazolariiei buruz?

Udal korporazioarekin batera ateratzen zirela bakarrik nekien; korporazioaren desfilea irekitzen laguntzen zutela. Horiek jaiegun jakinetan ateratzea ohitura kontua izango dela pentsatzen dut.

Zer irudikatzen du mazolariak?

Ez nago ziur. Egia esan, behin ere ez naiz jarri horren inguruan pentsatzen. Tradizioari eutsi dion herriaren sinbolo bat izan daitekeelakoa nago.

Eroso sentitzen al zara lan horretan?

Atera nintzen lehen aldian lotsatuta nengo-

en, jendeak zer pentsatuko zuen galdetzen nion neure buruari. Harrezkero, gustura ibili naiz, ordea.

Mazolari aritzen zaren egun guztietatik, zein duzu gustukoena?

Urtarrilaren 20ko, San Sebastian eguneko, dianak hunkitu egiten nau. Prozesioan ateratzen gara saninazioetan eta sansebastianetan, baina San Sebastian festak gehiago sentitzen ditut, neureago ditut festa horiek.

Herritar gehientzat jaieguna denean, konpromisoa eskatzen al du goizean goiz jaiki eta ardura hori hartzeak?

Konpromisoa da goiz geratzen garelako kalerara atera aurretik prestatzeko. San Sebastian jaiak neureak ditut, eta bezperako danborradan atera ostean, goiz esnatzea gogorra izaten da.

Anekdotarik bai?

Sansebastianetako korporazioan lehen aldiz ateratzen nintzenean, hasterako noiz bukatuko zain egon nintzen. Izan ere, bezperako festa luzatu egin zitzaidan, eta etxera joaterako 04:30ak-edo jo zizkidan.*



1. Ansola iazko saninazioetako korporazioan, parrokiaren atarian. (Angel Olabarria)
2. Aurtengo San Sebastian eguneko prozesioan.
3. Iazko San Inazio bigarreneko korporazioan, udal ordezkariekin plazan.



Totti, Jesus

N

ahiago nuke gauzak nola funtzionatzen duen jakingo banu, baina ez dakit, eta ez nago neuropsikologiazko galdarak hartu eta sarean begiratzeko moduan, denborarik ez, bestelako lan presazkoak galarazten didate. Eta, horrela, atzo –herenegun, herenegun antxitin, iaz, orain dela bi urte, lehengo batean–, ikusi nuen gizonezkoaren elastikoaren bizkarrean erakusten zuen izenarekin hasten da zoramen hau. Izena, Totti. Bi te, baina ez infusio, bi t, letra. Futbolari baten izena, italiarra, gizonezkoaren bizkarrean. Gizonezkoen bizkarrean ageri dira beti edo gehienean herrian bertakoak ez diren kirolarien izenak. Totti. Izan zitekeen Toti –arrakasta handiko Martinez de Lezea idazlea–, baina nola izango da, ba, idazlea, inork ezer letzen ez duen herrialde miresgarri Aliziarenean. Ez alferrik. Eta, horrela, Totti letu morroi haren bizkarrean, eta lagun bat ekarri zidan gogora izenak: Jesus Estrada Arrondo. Eta Totti eta Jesus. Ikustekorik ez, baina burmuin zoroak batetik bestera saltoka saltaka egin zuen. Jesus Estrada Arrondo, berari gustatzen zitzaionez, bi deiturekin. Eta haren historia, ez da-eta istorioa. Gerran hil zioten osabaren izena zeraman. Jesus Arrondo. 1937ko martxoaren 31n Gasteizko kartzelatik atera zituzten, papera sinarazi zieten, libre zihoazela esanez. Ordainetan, kamoian sartu eta Azazeta mendate aldera eraman zituzten eta, han, Jesus Estrada Arrondok inguru hartan bizi izan ziren batzuei eta besteiei jakin nahi zuena jakin arte galdetuz jakin ahal izan zuenez, fusilatu egin zituzten hamahiru lagun. Tartean, gure lagun Jesusen osaba Jesus. Eta, behin, haraxe eraman ninduen lagunak.

Oilo-ipurdia

Urte asko da gorpuak bertatik atera eta kanposantuan daudela, baina hamahiru lagun haiek akabatu zituzten lekura joateak, bertan egoteak, Jesus bertako eskutada lur hartuta ikusteak oilo-ipurdia egin zidan. Oilo-ipurdia



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Erakutsi behar izan diet nik ardura politikoa duten bi laguni, Jesusek seinalatu zaidan tokia

egiten dit pentsatu bakoitzean. Eta oraindik orain, halako batek Jesusi erakutsi zion moduan, Jesusek niri erakutsi zidan eran, erakutsi behar izan diet nik ardura politikoa duten bi laguni Jesusek seinalatu zidan tokia. Eta Jesus bera orain dela bost urte hil bazen ere, nire barruan bizirik zegoela antzeman dut. Jesus Estrada Arrondo zen, mendian lagun egindakoa, bere bihotza ireki zidana, historia hura eskribitzen lagundu zidana, galdu ez zedin, jakin genezan, “berriz horrelakorik gerta ez dadin”, esaten dutenez, baina ez dute esaten zuzengabekeria bat hemen, beste bat han, gorriak ikusarazten dizkigutela, poza eta zoriona galarazten dizkigutela, egunero akabatzen gaituztela, poliki-poliki, elastikoaren bizkarrean Totti eskribituta. Nahiago nuke gauzak nola funtzionatzen duen jakingo banu, baina ez dakit. Hauxe izorramendia.✕



ZATOZ AURTENGOAN ERE!

bertan azpeitiko merkataritza elkartea

Talasoterapia **Zelai** ZUMAYA

adab's leopaindegia

ANALID

Jone & Maikar

INAXITA leopaindegia

ukabi leopaindegia

GAROA kafetegia

MAITANE ESTETIKA ZENTROA

piku taberna

elhana leopaindegia

ENTRECAVIA TABERNA

GOATZ leopaindegia

OKINDEGLA

TRENBIDE KAFETEGIA

UTZ

ITURRIX leopaindegia

MANUEL ODRIOZOLA

SAZKUNE

KIMETZ

Zuha

Nagaitz kafetegia

KIROLDEGIKO TABERNA

EROSKI bidaiak

BORDATXO TABERNA

Halcon viajes.com

Kutxillo leopaindegia

J.B. San Sebastian Harategia

JOXE RAMON harategia

odriozola Harategia

ICIAR SANJUAN L.S. leopaindegia

EGENA

gotain

Jim Clark

OSATUZ leopaindegia

anare leopaindegia

aisialdi leopaindegia

IBNE AITUNA leopaindegia

Bigara leopaindegia

Zuhatz TABERNA

INTXAUSTI HARATEGOA - BIDAITEGIA

juantxotxiki TABERNA

Kantoi leopaindegia

AÑOTA leopaindegia

alioar kafetegia

MENDIZABAL ERRETEGIA

Meola leopaindegia

sanagustin

garai leopaindegia

eperra

Sakona

Edurne leopaindegia

TOPO

Baigera

ORBEGOZO leopaindegia

Uranaga

ELNEK leopaindegia

Auntxa Emetegia

INTZ

ETXAUN

INKA leopaindegia

TXOKOA leopaindegia

merats leopaindegia

LARATZ kafetegia

Baigera 2

Atseden KINTTELA leopaindegia

MOTX

Berdie

A&M

D.A.

jai-alai


LANDETA leopaindegia

L-REA

korrale leopaindegia

ERMELA leopaindegia

ERROTAUNDI leopaindegia



Zure lasaitasuna gure esku

Sedazio bidezko tratamenduak

GRUPO
 **horzkari**
hortz osasun klinika

Nabarro larreategi 1, behea
20200 Beasain

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 Azpeitia

Tel. 943 089 089



Xabier
margoak

PARKET LAMINATUAK

MOKETAK (naturalak eta era guztietakoak)

SINTASOL (egur eta zeramika imitazioak)

KORTXO, KARTOI eta PAPERAK

PAPER MARGOTUAK (jubenilak, naturalak...)



ESKATU AURREKONTUA

ERA GUZTIETAKO PINTAKETA
ETA DEKORAZIO LANAK
LIXAKETA ETA ZORU
BERNIZKETAK



Pablo VI kalea, 20 behea - Tel. 943 157 325 - Mug. 630 264 548 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

xabiermargoak@hotmail.com - www.xabiermargoak.com

